UDAL HAUTESKUNDEAK: ANTONIO PALACIOS • KULTURA: KAFE ANTZERKIA

# Arrasate PRESS

1995eko apirilak 28
274. zenb.



ELKARRIZKETA
**Daniel Landart**

## Maiatzaren 1a

# Langileen eguna

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

## LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua



LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

40 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

**BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa/Faxa: 79 41 82 ARRASATE

## · TELEBISTAREN TXOKOA ·

# PSOEko Ignacio Jimeno "Ni alkate" saioan




Datorren ostegunean PSOEko alkategaia den Ignacio Jimeno etorriko da ATBko "Ni alkate" saiora. Aurreko saioetan legez, alkategaia pertsonalki ezagutzeko aukera izango duzu, baita bere alderdiaren asmoak zeintzuk diren ere. Gogoratu, "Ni alkate" saioa gaueko 21.50ak aldera izango dela.

## · KOMIKIA ·




## · PROGRAMAZIOA ·

ATB

**30 Igandea**
21.00etan
Mondragol. Itxaro Zubillagak aurkeztua.

**1 astelehena**
Ez da programaziorik izango.

**2 Asteartea**
13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

**3 Asteazkena**
13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan

**4 Osteguna**
13.30etan
"Pareak Jokuan" errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Trebelanak
21.50etan
"Ni Alkate" hauteskunde programa.
Gonbidatua: PSOEko Ignacio Jimeno

**5 Ostirala**
13.30etan
"Ni Alkate" (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrazki Bizidunak

## · SOLUZIOAK ·

**Horizontalak:** 1.Lasa. 5. Oin. 8. Ukalondo. 10. Zakar. 11. In. 12. Kantu. 14. Pa. 15. Kulpa. 17. Etra. 19. III. 20. NUP. 21. Ikot.

**Bertikalak:** 1.Luzapen. 2. Akabatu. 3. Sake. 4. Alaska. 5. On. 6. Idi. 7. Nonbait. 9. Ortu. 13. Ilik. 16. Pio. 18. Rp.

**Jeroglifikoa:** Serio.

Etxe-Aundi
1. PLATERA
Kukulu entsalada antxoekin
Bakailao nahasia
2. PLATERA
Haragia edo arraina
POSTREA
Etxeko gozoteria
ARDOA
Etxeko ardo gorria eta beltza
Kafea
Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

•ARTEA•
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak, Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

## Etxebizitzak

• **Pisua alokagai Eskoriatzan.** 97 $m^2$. Sukaldea, 3 gela, terraza. Tfnoa: 71 43 51. Gaueko 9etatik 11etara.

• **Apartamentua daukat Jacan** udaran alokatzeko. Tfnoa: 74 15 22.

• **Garajea alokagai Larrea Plazan,** Tfnoa: 79 36 79.

• **Garajeitxia alokatzen da Larrea aldean.** Tfnoa: 79 69 41. Julia.

• **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

• **Arrasaten pisua** alokatuko genuke. Tfnoa: (94) 433 11 52. Mª Karmen.

• **Beste lagun batzurekin batera** pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Eskoriatzan. Tfnoa: 79 09 11. (Gauez).

• **Pisua alokatzen da Bizkaia Etorbidean.** Tfnoa: 77 14 24.

• **Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten.** Tfnoa: 79 78 65.

## Lana

• **Erizain laguntzailea** eta esperientziadun gerokultorea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.

• **Egunero 2 edo 3** orduan etxeko lanak egiteko emakumea gertu. Tfnoa: 77 10 20.

• **Mutil gazte bat lana egiteko prest** Kamarero, eraikuntzan... Tfnoa: 79 77 32.

• **Esperientziadun neska euskalduna** behar da, umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 21 63 tfnora.

• **Klase partikularrak** ematen dira.UBI mailara arte. Matematikak fisika, kimika... Talde txikiak. Tfnoak: 79 56 82 eta 79 71 89.

• **Neska gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko edo dendari lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17

• **Neska gertu umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 77 94.

• **Andra euskalduna** etxeko lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

• **Umea zaintzeko** pertsona euskalduna behar da. Dei egin eguerdiko ordu 1etik ordu 2etara. Tfnoa: 77 13 30.

• **Puerikultura laguntzailea** esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Batez ere ume txikiak. Tfnoa: 79 32 39

• **Esperientziadun emakume** heldua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 23 54.

• **Aste bukaeratan lan egiteko** bi neska gazte prest daude. Umeak, pertsona nagusiak, etxeak edo tabernak garbitu... Interesatuak dei egin arratsaldetan 79 77 32 tfnora 7etatik 10etara. Mari Karmen.

• **Frantsez, ingeles eta OHOko** klaseak ematen ditut. Tfnoa: 79 99 82. Miren.

• **Ingelesezko klase** partikularrak emango nituzke. esperientzia daukat. Tfnoa: 79 21 56.

• **Emakumea behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuek: 79 00 34 tfnoa.

• **Unzueta jatetxeak** hurrengo lanpostuetarako pertsonak behar ditu: sukaldari laguntzailea, kamarero eta asteburutarako laguntzailea. Dei egin (945) 44 50 95.

## Salerosketak

• **Gas naturaleko kalentadorea salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 79 59 72.

• **Bi pare eski** eta bi pare bota salgai. 33.000 PTAgatik. Tfnoa: 79 25 31. Gauez.

• **Kanping-denda salgai.** Oso handia eta egoera onean. Tfnoa: 74 15 22.

• **Nissan Serena** salgai prezio onean. Tfnoa: 79 19 55.

• **Vespa beltza salgai,** SS-W. Tfnoa: 79 46 98. (Gauetan).

• **Produktu izoztua jartzeko irla salgai.** 1.70m.ko luzerakoa eta Capeli markakoa.Tfnoa: 29 82 58.

• **Sukaldeko altzariak salgai,** sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauean 79 01 66 tfnora. Arantzazu.

• **Kanping edo karro erremolkea salgai.** 75.000 pta. Tfnoa: 79 00 99.

## Denetarik

• **Gay edo lesbiana al zara?** Bizitza guztia ezkutuan pasa behar al duzu? Ez dezala inork zure sexualitatea muga, erakutsi zure maitatzeko gaytasuna. Zure zain gaude. 128 postakutxa. 20700 Zumarraga.

• **Atzerriko jendea hartzeko** familiak behar dira. Interesatuta bazaude dei egin telefono honetara: 79 01 32

• **Betaurreko graduatuak galdu nituen** apirilaren 11n. Aurkitzen badituzu saritua izango zera. Tfnoa: 79 54 63.

• **Etxea jazteko edozein altzari** eta elektragailuak behar ditut. Oso gustora hartuko nituzke zuk botatatzeko dituzunak. Tfnoa: 71 52 45.

• **Apirilaren 9an Andreseko plaza** inguruan urrezko pultsera bat aurkitu genuen. Amaia jartzen du. Tfnoa: 79 91 52.

# Aste Gazte

### Euskadiko gazteak lankidetzan

• Hegoamerika, Afrika eta Asiako hainbat herrialdetan kooperazio egitasmotan parte hartzeko programa. Ikasketak eta kooperazio lanetako esperientzia baloratuko da. Egonaldiak 1-3 hilabetekoak izan daitezke. 20-30 urte bitartekoei zuzenduta. Epea: Maiatzak 2.

### Udalekuak (Diputazioa)

• Udaleku espezializatuak 14-17 urte bitarteko gazteentzat. Aurre-inskripzioa egiteko epea zabalik dago maiatzak 12ra arte. Izenematea Gazte Bulegoan.

### Euskal Udalekuak

• Abaigar, Bernedo, Goñi eta Urdirozen. OHOko 1. mailatik 8. mailara eta 14-17 urte bitarteko ikasleei zuzenduta.

### Gaztemaniak

• "Fantasia eta Beldurrezko zine maratoia" luze eta laburmetraiak, apirilaren 30ean, arratsaldeko 4.30etatik aurrera Amaia Antzokian. Jatorrizko bertsioan azpitituloekin. Sarrera 500 pta.

### Bekak

• Diputazioko Kultura eta Turismo Departamentuak, bekak, eta dirulaguntzak emateko deialdia egin du. a) bekak eman eta lehen daudenak luzatzeko, arlo hauetan: musika, dantza, antzerkia, ikusentzutekoak, arte plastikoak eta errestaurazioa; b) Arte Sorkuntzako bekak: arte plastikoa, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa; d) "Nicanor Zabaleta" musika beka; e) Historia ikerketarako bi beka; f) Bideogragia sorkuntzarako laguntzak; g) Arte plastiko eta ikusentzutekoen arloan laguntzak; h) Laguntza poltsak, arte arloko iraupen laburreko ihardueta joan edo horietan parte hartzeko. Epea: maiatzak 27.

### Ikastaroak

• Argazkigintza. Sakontze Maila. Maiatzaren 8tik 25era. 7.15etatik 9.15etara. Matrikula, 3.500 pta / 2.000 pta ikasle eta langabetuentzat.

***"Gure gazteen eta gure gizartearen beraren sorte eta etorkizunaren gakoa heziketa da."***

**JOSE Mª ARIZMENDIARRIETA**

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# Badakizu Udalak zertan gastatuko duen dirua aurten?



**Rafael Ruiz**
**Langilea**
**(50 urte)**

Zehazki ez, baina obra asko egiten denez diru gehien horretan gastatuko dela uste dut. Zergak behintzat ordaintzen ditugu eta diru horrekin zerbait egingo dute.



**Maria Jesus Martin**
**Dendaria**
**(29 urte)**

Ez dakit, gai horrek ez dit ardura. Hala ere uste dut bideak konpontzen eta orokorrean herria hobetzeko gastatu beharko litzatekeela dirua.



**Markel Zallo**
**Langilea**
**(23 urte)**

Idearik ere ez dut. Ez dut aurrekontuen gai hori jarraitzen.



**Mertxe Bedia**
**Langilea**
**(34 urte)**

Zehazki ez dakit baina uste du, urtero moduan, hirigintzan, kiroletan eta kulturan gastatuko dutela gehien.



**Alberto Kabiketa**
**Langilea**
**(45 urte)**

Ez dakit. Interesatzen zait gaia baina gutxi gora behera zertan gastatzen den badakidanez, ez dut zehazki jarraitzen.



**Mari Carmen**
**Arietaleanizbeazkoa**
**Etxekoandrea**
**(49 urte)**

Ez dakit. Sekula ez dut gai hori jarraitu.



**Enrique Delgado**
**Langilea**
**(54 urte)**

Diru asko gastatzen da baina askotan ez dakigu zertan gastatzen duten. Parrokiari, adibidez, ez dakit zenbat diru eman dioten eta oraindik ere gehiago eskatzen dute.



**Marije Zabarte**
**Langilea**
**(36 urte)**

Uste dut diru asko kiroletan eta kulturan gastatzen dela, baina niri ondo iruditzen zait.

Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Masaiak
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak
- Azal garbiketa
- Ezkongaientzako makilajea

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ......79 53 00
Igualatorioa ......79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ......79 39 00
(emakumeak) ......79 44 11
Buru osasunerako zentrua ......79 90 11

**Gurutze gorria**
Bergara ......76 55 76

**DYA**
Antzuola ......76 62 91

Anbulatorioak
Arrasate (Larrialdiak) ......79 13 57
(Txanda hartzeko)......77 03 46
77 07 21
Oñati ......78 08 52
Eskoriatza ......79 98 58
Aretxabaleta ......79 74 58
Aramaio ......(945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak ......45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ......78 04 11
Bergara ......76 14 69
Arrasate ......79 14 39
Aretxabaleta ......79 10 52
Eskoriatza ......79 03 22

**Ertzaintza**
Arrasate ......79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ......79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ......79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ......12 01 62
Gasa ......900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ......79 12 22
P.E.S.A. ......79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza ......79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ......79 81 57

**Kontsumitzailearentzako Informazioa**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ......79 87 77
KIUB-OMIC ......79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron ......77 01 05

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 28**
Egunez eta gauez : Amezua. Santamaina.

**Larunbata 29**
Egunez eta gauez : Ruiz. Maalako Errabala.

**Igandea 30**
Egunez eta gauez :
Morales. San Andres auzoa.

**Astelehena 1**
Egunez eta gauez :Camacho. Bergara.
10ak arte: Azkoaga. Ferrerias kalea.

**Asteartea 2**
Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
10ak arte: Español. Iturriotz kalea.

**Asteazkena 3**
Egunez eta gauez : Cuellar. Bergara.
10ak arte: Corcuera. Musakola.

**Osteguna 4**
Egunez eta gauez : Estella. Bergara.
10ak arte: Irizar. Erguin kalea.

## 28 OSTIRALA

• **ZINEA**
"Farinelli" 7etan eta 9.30etan.

• **SAN ANDRESEKO JAIAK**
Arratsaldeko 6etan jaien haiera. 6.30etan Buruandiu eta erraldoiak. 10etan "Aizama" taldearekin dantzaldia.

• **KAFE ANTZERKIA**
Kafe antzerkia, Mexikoko Saltimbanqui taldearen "Cuentos de Tradición indigena" antzezlana Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 500 pta. eta gaztetxartelarekin 400 pta. Sarrerarekin kafea doan.

• **ABIADURA HANDIKO TRENAREN INGURUKO TOPAKETAK**
Abiadura handiko trenaren eta garapenaren gaineko topaketen barruan, arratsaldeko 5etan akanpadalekua prestatu, pankartak eta kartelak egin Gaztetxean. 8etan kalejira. 9etan afaria akanpadalekuan, bazkaria eraman behar da.

### PATINAJE ETA BOLEIBOL IKASTAROAK

Boleiboleko entrenatzaile tituloa lortzeko ikastaroa Eibarko Ipuruako kiroldegian maiatzaren 6, 7, 13 eta 14ean. Larunbat goiz eta arratsaldez eta igande goizez. Prezioa: 6.000 pta Deba Bailarakoentzat eta 8.000 pta kanpotarrentzat. Irakasleak Gipuzkoako Boleibol federaziokoak izango dira. Patinaje ikastaroa Elgoibarko Olaizaga kiroldegian maiatzaren 6, 13 eta 20an, goizeko 9etatik 1.30etara. Prezioa: 1.400 pta Deba Bailarakoentzat eta 1.800 pta kanpokoentzat. Irakaslea: Josean Iñarra Heziketa Fisikoan Lizentziatua.

## 29 LARUNBATA

• **ZINEA**
"Farinelli" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **JOSE MARI MENDIZABALEN OMENEZKO MEZA**
San andres Parrokian arratsaldeko 7etan Jose M Mendizabalen omenezko meza.

• **MASTER CLASS-HITZALDI MUSIKALA**
Hizlaria: Juan Carlos Calleja Sevilla Orkestrako Tuba Solista. Arratsaldeko 4.30etan, Akademiako aretoan.

• **TOPAKETAK**
Eztabaida eguna. Goizeko 11etan eztabaidaren lehen zatia, 4retan bigarren zatia eta 5.30etan bideo emanaldia. Hizlariak: P. Vega, W. Wolf eta Beltza. Gauean Kontzertua "Bap" taldearekin Gaztetxean.

• **SAN ANDRESEKO JAIAK**
9.30etan Mountain bike irteera. 10.30etatik 12.30etara futbol partiduak. 4etan patinaje txapelketa Hiruki plazan. 5etan umeentzako jaialdia. 6.30etan erraldoi eta buruhandiak. 10.30etan "Exagono" orkestrarekin dantzaldia, atsedenean Karaoke txapelketa.

• **KAFE ANTZERKIA**
Kafe antzerkia. Frantziako Bululu Theatre-ren 6 istorio: "El ciego", "El Titere", "La muerte", "El Escultor", "El Idiota", "Una historia de amor". Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 500 pta. eta gazte-txartelarekin 400 pta. Sarrerarekin kafea doan.

## 30 IGANDEA

• **ZINEA**
"Pret á porter" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **TOPAKETAK**
Mendi irteera Udalaitzera goizeko 9etan.

• **SAN ANDRESEKO JAIAK**
12etan Karate erakusketa. ordu batean gaztelu puzgarriak. 4etan auto telegidatua 2. txapelketa. 5etan umeentzat jolasak. 6etan Eskoriatzako Musika eskolako ikasleen kontzertua Asuntzion elizan. 10.30etan "Oropendola" taldearekin dantzaldia.

• **BELDURREZKO ZINEA**
Beldurrezko zine maratoia, luze eta laburmetraiak, Amaia antzokian arratsaldeko 4.30etatik aurrera. Sarrera: 500 pta.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
Ibilbidea: Maltzaga, Ermua, Trabakua, Lallaria, Areitio gaina, Berriz eta Arrasate, 62 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterronetik.

### ARGAZKI ERAKUSKETA

*Jose Luis Feoren argazki erakusketa Harresi aretoan. Azken eguna maitzaren 2a.*

### KAFE ANTZERKIA

**Apirilaren 28 Ostirala eta 29 larunbata, Amaia antzokian gaueko 10.30etan.**

## 1 ASTELEHENA

• **ZINEA**
"Pret á Porter" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **LANGILEEN ALDEKO MANIFESTAZIOA**
Langileen erreibindikazio eta borroken aldeko manifestazioa Bilbon goizeko 11etan. 2.30etan bazkaria izango da Trabuko taldeak alaituta. Arrasateko ELA-Gazteak autobusa antolatu du goizeko 9etan ELAko lokaletik.

• **CORAZON DE ENCINA TALDEAREN KULTUR ASTEA**
Eguerdiko 12etan plater jaurtiketa Venta Frian. Ordu batean PlayBack jaialdia Corazon de Encina elkartean. 7etan Sebastian Fraile cantaorearen emanaldia.

• **SAN ANDRESKO JAIAK**
10.30etatik 11.30etara futbito txapelketako finalak. 12etan meza. 12.30etan Herri kirolak. 2.30etan 65 urte gorakoentzat bazkari omenaldia. 5etan umeentzat jaialdia. 6.30etan erraldoi eta buruhandiak eta 8.30etan jaien bukaera.

## 2 ASTEARTEA

• **ZINEA**
"Pret á Porter" 7etan eta 9.30etan.

• **HITZALDI ZIKLOAK EKOLOGIA ETA INGURUNEARI BURUZ**
Gaia: zaborra poltsari nola probetxu atera. Arratsaldeko 5etatik 6.30etara Monterronen. Hizlariak: Elena Oiarbide, Geologoa eta Esteban Egilegor biologoa. Kutxak antolatuta.

• **CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA**
Marrazki, margo eta idazkera lehiaketa elkarteko liburutegian.

## 3 ASTEAZKENA

• **HITZALDI ZIKLOAK EKOLOGIARI BURUZ**
Gaia: Benetan kalitate oneko ura edaten al dugu?. Hizlariak: Elena Oiarbide eta Esteban Egilegor. Arratsaldeko 5etatik 6.30etara. Kutxak antolatuta.

• **CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA**
Arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara haurren txokolatada elkarte aretoan. 7.45etan emakume ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua Iturripen.

• **ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ ALDATZEKO KANPAINA**
Monterronen goizeko 11etan abizenak Euskal grafiaz aldatzeko kanpaina hasiko da AEDk antolatuta.

• **INSUMISIOAREN ALDEKO BILERA**
Gaztetxean arratsaldeko 7.30etatik aurrera Arrasaten "Insumiso Asanblada" bat sortzeko bilera burutuko da, jendea gai honen inguruan gehiago mugi dadin. Bilera nahi duen guztientzat dago zabalik, pertsona nahiz erakundeentzat.

## 4 OSTEGUNA

• **HITZALDI ZIKLOA EKOLOGIARI BURUZ**
Gaia: Hotsa eta zarata zerbait gogaikarria baino gehiago ere badira. Hizlariak: Elena Oiarbide eta Esteban Egilegor. Arratsaldeko 5etatik 6.30etan Monterronen. Kutxak antolatuta.

• **HITZALDIA**
Gaia: Osasunaren gainean diskurtso feministaren proposamenak. Hizlaria: Mailuz Esteban. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

• **CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA**
Arratsaldeko 8etan Emiliano Carretero Rabazoren hitzaldia. Gaia: Extremeñotasunaren legea. 8.30etan Extremadurako jakien dastatzea.



**SAN ANDRESEKO JAIAK**

**Ostiraletik astelehena bitartera jai giroa nagusituko da San Andres auzoan. Ondo pasatzeko ekintzarik ez da falta izango.**

### SALOI DANTZEN IKASTAROA

Ekin elkarteak maiatzeko ostegun guztietarako saloi dantzen ikastaroa antolatu du. Bi ordutegi aukeran: 3.30etan eta 6.30etan. Ikastaroa AEDko lokalean izango da Pablo Uranga, 4 behea eta matrikula 1000 pta. Interesatuta egonez gero jo AEDra edo telefonoz deitu 77 12 28.

### IKASTAROAK

*Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak hainbat ikastaro antolatu du. Sukaldaritza eta eskulanen ikastaroak goizeko 9etatik 12etara. Arratsaldeko 3etatik aurrera, Bolillo, tapiz eta Makrame, garapen pertsonala, marrazkia, puntu eta gantxilo, eta sukaldaritza ikastaroak. Arratsaldeko 6.30etatik aurrera Gitarra, tapiz eta makrame, marrazki, aitzarien berriztapena eta garapen pertsonalaren ikastaroak. Informazioa gehiagorako dei egin Famili eta Gizarte zentrura.*

## Udal aurrekontuak onartu

PSE-EE alderdiaren kontrako botuekin, Aitor Orobengoaren abstentzioarekin baina HB, PNV eta EAren aldeko botuekin apirilaren 12an udal aurrekontuak onartu ziren. Hasierako zirriborroaren gainean hainbat emendakin aurkeztu zenez, lehenengo horiek bozkatu ziren. Frantziskotarrekin dagoen arazoa zuzendu arte San Frantziskoko erretaula konpontzeko dirurik ez ematea eta sei hilabeterako arkitekturik ez kontratatzea erabaki zen. Hiru mozio ere aurkeztu ziren eta EKI taldearena bakarrik atera zen aurrera. Mozio horretan, AKEI erraustegiak ekarri ahal izan dituen ondorioei buruzko azterketa epidemologikoa egitea eskatzen da.

## Kultur Astea SFXen

Euskarari bultzada bat emateko, aste guztian zehar kultur astea burutu dute San Frantzisko Xabier ikastolan. Asteartean Juan Martin Elexpuru idazleak, berak idatziriko "Alpeen Itzalpean" liburuaren aurkezpena egin zien ikasleei. Asteazkenean, zine emanaldiak izan zituzten eta ostegunean Iñurrategi anaiak izan ziren hizlari. Horrez gain, Tutera eta Kanbotik etorritako ikasleen bisita ere jaso zuten.



## ASAren argazki rallya

Jende gutxik parte hartu zuen joan zen domekan ASA taldeak antolatutako argazki rally-an. Ezarritako gaiari jarraituz, zortzi lagun aritu ziren herriko edifizio publiko eta pribatuei argazkiak ateratzen. Rallya diapositibekin egin zenez, datorren astean jakingo da zein izan den rally honetako irabazlea. Argazkilaritza bultzatzeko asmoz antolatu zuen ASA taldeak ekintza hori eta aurrerantzean beste batzuk egiteko asmoa du.



## 25 suhiltzaile bolondres

Asteartean Deba Garaiko suhiltzaile bolondresen aurkezpena egin zen Zubillagako parkean. Guztira 25 lagunek osatzen dute taldea, denak 40 urte baino gutxiagokoak eta inguruan bizi direnak. Egingo duten lanaren truke suhiltzaile bolondresek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute eta "busca" bat eramango dute nahiz eta profesionalak adina ordu sartu ez. Aurkezpen ekitaldian Eli Galdos diputatua izan zen besteak beste eta sute edo istripuren bat gertatzen denean zein pausu jarraituko duten erakutsi zuten suhiltzaile bolondresek.

## SEI FAGORen agiria

SEI FAGOR-ek, Frantziako Fagor Sistemasen filialak, nazioarteko ISO 9001 kalitate agiria lortu du. Sistema informatikoei zerbitzuak ematen dio SEI FAGORek eta Frantzian informatikan lan egiten duten 1.400 enpresetatik 15ek baino ez dute nazioarteko agiria. Frantziako Dassault Systemes, hegazkin enpresa handienak, gainera, hainbat eskola ematea eskatu dio SEI FAGOR-i.

### JAIOTZA

- Marina Garmendia Elizburu. Apirilaren 7an.

### EZKONTZA

- Francisco Jabier Iribekanpos Gallastegi eta Maria Idoia Zubillaga Ugarte. Zibilez. Apirilaren 8an.

### HILDAKO

- Mari Carmen Uhagon Prado. Apirilaren 13an. 76 urte.
- Vicente Ugarza Irizar. 13an. 72 urte.
- Pedro Zubiete Otaduy. 15ean. 87 urte.
- Remedios Pérez Martín. 19an. 70 urte.
- Eulalia Ramos Sanchez. 19an. 83 urte.
- Carla Olivera Rodriguez. 20an. 3 urte.
- Martin Manzanal Garcia. 23an. 89 urte.
- Ignacio Balanzategi Salaberria. 23an. 71 urte.

Arreta haundiko sukaldea

UGARAN jatetxea

Giro abegikorra

Garagartza auzoa

Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE



# Antonio Palacios (PP)

## *Alderdia herrian finkatu nahian*

**Antonio Palacios**
PPko alkategaia.
Gasteiztarra
**Adina:** 27 urte.
Ezkongabea.
Enpresa Zientzietan lizentziatua. Langabezian.
**Afizioak:** irratia entzutea.

**– Zu zeu ez zara arrasatearra baina herria ezagutzen duzu?**

– Bai, Gasteizen arrasatear edo Arrasaten lan egiten duen pertsona asko dago eta herria ezaguna da. Euskal kooperatibak hor sortu zirelako eta industrialki herri garrantzitsua delako ezagutzen dut Arrasate.

**– Zein emaitza lortzea espero duzue?**

– Gure helburua bi zinegotzi lortzea da eta azken hauteskundeetan lortutako emaitzei begiratuta, hori posible dela uste dugu. Herriko hautagairik aurkeztu ez bada ere, PPko botuak jaso nahi ditugu horiek erabilgarri egiteko.

**– Zer egin nahi duzue Udalean?**

– Udalak herritarrei zuzendutako ekintzak egin behar ditu, Udalak zerbaitetarako balio duela ikus dezaten. Alor desberdinak hartu behar dira kontuan baina krisi egoeran gaudenez, batez ere lanpostuak sortzera zuzendu behar dira indar guztiak.

**– Zer eskain dezake PPk?**

– Alderdia osatzen dutenen zintzotasuna eta lanerako gaitasuna. Gizarteak ez da balore horiez jabetzen baina garrantzitsuak dira benetan.

**– Nola ikusten duzu beste alderdi batzuekin paktuak egiteko aukera?**

– Askotan ez dira ideia politikoak kontuan hartzen eta bakarrik gobernuan egotea bilatzen dute alderdiek, baina oposiziotik ere gauza asko egin daiteke.

**– Zertan oinarrituko da zuen kanpaina?**

– PPko partaideok beste batzuk bezalakoak garela erakustea da nire asmoa. Lehendabizi balio dudala eta hor nagoela erakutsi nahi dut. Bestalde hurrengo lau urteotan arrasatearrak PPren programan parte hartzera animatu nahi ditut, ondoren egingo diren hauteskundeetan herriko jendea aurkez dadin.

**– Ilusioa egingo lizuke Arrasateko zinegotzi izateak?**

– Jakina, nire lehenengo kargu politikoa izango da eta.


*Antonio Palacios (Partido Popular)*

### ■ PSE-EEren hautagaien aurkezpena

Arrasateko PSE-EEk zerrendaren aurkezpena egin zuen asteartean eskainitako prentsaurrekoan. Jesus Eguiguren, Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia eta Guillermo Etxenique, Diputatu Nagusirako hautagaia izan ziren aurkezpenean. Ignacio Jimeno alkategaiak, PSE-EEk Arrasaten irabazi egin dezakeela azpimarratu zuen eta orain dela bi urte bezala, gutxigora behera 4.000 botu lortuko dituztela adierazi zuen.

### ■ HB hasteko gertu

Maitzaren 4ean hauteskunde kanpaina prestatzeari ekingo dio HBk. Egun horretan arratsaldeko 7etan, asanblada egingo da Arrano elkartean, maiatzaren 16ko mitina, programaren aurkezpena prestatuta eta maitzaren 20ko luntxa. Asanbladara arrasatear guztiak daude gonbidatuta.

Bestalde, korreo bidezko botuari buruzko informazioa ematen ari da HB. Hala nahi duten guztiek, maiatzaren 19a baino lehenago informazioa jaso dezakete Arrano elkartean, arratsaldeko 7etatik 8.30etara.

### ■ Arzallus Arrasaten

Egoera politikoari buruz hitzegitera etorri zen Xabier Arzallus apirilaren 13an. Arzallusek adierazi zuenez, PSE-EEkoen egoera ez da ona eta HBk behera egingo du datozen hauteskundeetan. EAJk lor dezakeen emaitzari buruz itxaropentsu azaldu zen.



* Juan Jose Goenaga

# Zer, nor da Jainkoa?

Txikitan esan zidaten NOR zen Jainkoa. Amak esan zidan. Eta ez zidan esan zuzenean, sukaldean otoitz eginaz baizik. Jakin baino gehiago "esperimentatu" egin nuen fedearen hasikina.

Ezagutzen dut gizon bat. Berrogei urte ingurukoa, orain dela urte batzuk "La fuga de Segovia" filmean parte hartutakoa. Apaizgaia izan zen gaztetxo zela. Hirurogeitahamarreko zurrunbilo ideologikoan mila ate joaz ibili, eta fedearen mundua alde batera utzita hortik zehar ibili zen.

Ezkondu egin zen eta haur bat izan zuten. Neskatoa bera.

Neskatxak bost urte zituelarik, egun batez aurpegira bota zion galdera hau: Aita, nor da Jainkoa?

Bere ahotik entzuna dut izerdiak busti ziola gorputz osoa, gorritu eta zer esan ez zekiela mututurik gelditu zela. Zer erantzun?

Eta berak esan zidan: "Nere alabatxoaren galdera horrek, ikasi nuen eta kezkatu ninduten galdera guztiak baino zirrara haundiagoa sortu zidan nere baitan".

> *"Zenbat guraso dira gure artean, nahiz eta euren seme-alabak bataiatuak izan eta Katekesira bidali, ausardiarik ez dutenak beren seme-alabatxoekin 'Gure Aita' esateko?'*

Ordutik, bere bizitzan aspalditik erdoildurik zeuzkan eta isilarazita gorderik zituen galderei irtenbidea ematen hasi zen: ea gauza ote zen bere alabatxoari erantzun jator eta "esperimentatutako" bat emateko.

Badakit gure inguruko guraso asko, euren seme-alabatxoak bataiatzera presentatzen dituztenean edo eta Katekesira bidaltzen dituztenean, horrelako galderen aurreran jartzen direna.

Zenbaitek isilarazi egiten du galdera, beste batzuk ezentzun itxura egin eta "tradizioari" bere lehorrean jarrai. Eta ezer berezirik gertatuko ez balitz bezala jarrai.

Eta seme-alabatxoak galderarik egiten badie "hori katekistari galde" erantzuten diote. Zenbat guraso dira gure artean nahiz eta euren seme-alabak bataiatuak izan eta katekesira bidali, ausardiarik ez dutenak beren semealabatxoekin "Gure Aita" esateko? Jainkoaz zerbait esan behar badiote mutu gelditzen direnak asmatzen ez dutelako zein hitz erabili edo zer esan ez dakitelako?

Eta fedea isiltzen denean, hurrengo pausua desagertzea da. Espresatzen ez dena izkutatu egiten da gure esperientziarako.

Eta... zein zaila den etxean otoitz egin gabe hasi eta hezi diren gaztetxoei Jainkoaren esanahia eta fedearen muina adieraztea!

* San Andreseko Parrokoa

## USTEAK USTE

**Maiatzaren lehena gainean dugunean, 1995eko lehen hiruhilabeteko langabeziari buruzko datuak ezagutzeko aukera izan dugu eta ez dira ez, ospatzeko modukoak.**

**Egia da martxoan zertxobait jaitsi dela INEM-en izena emandako langabetuen kopurua (1846 gutxiago) baina ezer gutxi datuok erlatibizatzen baditugu. Ikus dezagun: Araban otsailean populazio aktibo osotik %16,12a langabezian bazegoen, orain %15,80a; Bizkaian lehen %16,10a eta orain %16,05a; Gipuzkoan otsailean %14,27a eta orain %13,95a eta Nafarroan %12,55a.**

**Datu hauek berez esanguratsuak badira are gehiago zuzperraldi ekonomikoa eta enpleguaren sortzea bat ez datozela kontuan hartzen badugu, hau da, ez dira neurri berdinean ematen. Gauzak oker doazenean langilegoa izaten da lehenetarikoa nabaritzen, ez dirudi aldiz, gauza bera gertatzen denik egoera hobetzen denean.**

**Bestalde ez dugu ahaztu behar langabetuen gehiengoa emakumezkoa izaten jarraitzen duela, eta jarraituko du sortzen diren lanpostu urriak gizonezkoek bakarrik edo ia bakarrik betetzen badituzte.**

**Hau langabeziari dagokionez, baina gogoratu behar dugu lan kontratupean dihardutenek ere ez dutela azken urteotan poztasun handirik izan, emandako pausuak atzeraka aurreraka baino gehiago izan direlarik.**

**Guzti hau kontuan hartuta badugu bai Maiatzaren lehena "ospatzeko" arrazoirik.**

Amaia Jauregi-Arraburu

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

Elektroinjekzio Zerbitzua
LUCAS
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

**Maiatzaren 4tik 18ra**

## Aurreinskripzio epea zabalik

BBB • IEE • BATXILERRAK • UBI • A, D, D´ ereduak



# INSTITUTUA DENONA!

## Zatoz informatzera!

Arrasate

Santa Teresa, 25 • Tfnoa: 79 44 47/37 • ARRASATE

# Zergatik Irlandara?

**1.- Zergatik joaten da horrenbeste jende Euskal Herritik Irlandara ingelesa ikastera?**

Ez bakarrik Euskal Herritik, mundu guztiko ikasleak joaten dira. Irlandako edozein herritan ingelesaz gain beste hizkuntza mordoa entzuteko aukera dago, gehienbat uda partean.

Askoren ustez Irlandako ingelesa aberatsena da. Irlandarrek garbi eta gozoki hitzegiten dute eta honek erraztasun gehiago ematen dio ingelesa ikastera doanari. George Bernad Shaw-ek Irlandan ingelesik onena hitzegiten dela idatzi zuenean, gehien hitzegiten dela ere gehitu zezakeen, kafetegi, "pub" edo kaleetan egoten den giroagatik.

Gainera Irlandan ingelesa irakasteko tradizioa aspalditik datorrenez irakasleen maila eta profesionaltasuna oso altua da. Tradizio hau dela



eta, irlandarren erantzuna oso ona da kanpoko ikasleak euren etxean hartzeko orduan.

Guzti honegatik, Euskal Herriko ikasle askorentzat Irlanda da tokirik aproposena ingelesa ikasteko.

**2.- Nola aurkitzen da hemengo ikaslea Irlandan?**

Oso ondo. Irlandarra berez oso irekia da eta eguneroko harremanetan guztiz atsegina. Gainera Euskal Herriko eta Irlandako jendearen izakera antzerakoa denez hemengo ikaslea etxean bezala aurkitzen da. Irlandarrak jakingura haundia du eta beti dago elkarrizketa bat hasteko prest. Honek, egunean zehar ingelesez hitzegiteko aukera asko ematen du.

**3.- Zer aukera ematen ditu Parlance-k Irlandan ingelesa ikasteko?**

Gure akademia irakasle irlandarrez osatuta dago eta urtero, uztailean, gazte eta helduentzat ikastaroak antolatzen ditugu. Arrasateko ikasleentzat ikastetxe onena aukeratzeaz gain, famili egokienak ere aukeratzen ditugu egonaldia zoriontsua izateko.

Galway, ikastaroaren egoitza, horrelako ekintza bat burutzeko toki aproposena da. Bere hedadura toki interesgarri eta alaia izateko nahikoa da eta era berean giro akademiko eta atsegina eskeintzen du. Ingelesa ikasteko Irlandara joatea bururatzen bazaizu ez ezazu inolako zalantzarik izan eta jarri zaitez gurekin harremanetan 77 06 83 telefono zenbakian.



Ferrerias kalea, 11
etxabea
Tfnoa: 77 06 83
ARRASATE

Parlance

# Deba Garaiko sindikatuen aldarrikapenak Maiatzaren 1ean

Maitzaren 1ean, Langileen eguna ospatzeko EAEko sindikatuek antolatu duten manifestazioetan parte hartuko dute Deba Garaiko sindikatuek ere.

Euskal Herrian erabaki denari jarraituz, elkarrekin Bilbon egingo duten manifestaziora joango dira Deba Garaiko ELA eta LAB. Arrasateko ELAk autobusa antolatu du Bilbora joateko eta LABekoek autoz joateko asmoa dute. L.M Saez de Legarda, ELAko partaidearen esanetan, lan tenporaleko enpresetan (ETTetan) egiten diren kontratuen eta lanbide liberaleko langileek egiten duten iruzur fiskalaren aurkako jarrerak azaltzea izango dira aurtengo maiatzaren 1ean egingo diren aldarrikapen nagusienak. Jon Alustiza, LABeko ordezkariaren berbetan ere, lan tenporaleko enpresetan egiten dituzten kontratuen aurkako jarrera azalduko dute maiatzaren lehenean. Gainera, langileen etorkizuna eraikitzeko lan erlazioetarako euskal markoa eraikitzeak duen garrantzia aldarrikatuko dute LABekoek.



UGT eta CCOO Donostiara joango dira eta LAB eta ELA Gasteizera.

Deba Garaiko CCOO eta UGT, ostera, Donostian egingo den manifestazioan izango dira. CCOOeko J.R Garairen iritziz, gizarteari miserian bizi diren langabetuen egoera zelakoa den azaltzeko balio behar du langileen egunak. Horregatik, ordu extrak sartzeak lagun horiekiko elkartasun eza erakusten duela uste du. UGTko Salvador Peñaren esanetan, gero eta kontratu txarragoak egiten dira eta gehienak gainera aldi baterako izaten dira. Kontratu horiek egiteko aukera gobernuak eman duenez eta patronalak aurrera eramaten dituenez, astelehenean horien aurkako jarrera azaldu behar da.

Deba Garaiko ESK-ko partaideak, Donostian nahiz Gasteizen egingo diren manifestazioetara joango dira. J.R Landaren berbetan, aurtengoan ez dute enpresarien aurkako aldarrikapenik egingo baina ordu extrak sartzen dituzten langileen jarrera salatuko dute, horrek beste batzuk lanik ez izatea ekartzen du eta.

## Udaleko langileen lan baldintzak

Udal eta Foru administrazioetako langileen konbeniorako negoziaketa mahaia apurtuta dagoenez, Arrasateko Udaleko langileek asanblada egin zuten astearteau lan baldintzak negoziatzeko. EUDELeko ordezkariek soldatetan %3,5 igotzea eskatzen dute baina sindikatuak ez daude horrekin ados, IPCa %5 igoko denez eta iaz soldatak jaso ez zenez, igoera txikia dela uste dute eta.

Konbenio kolektiborako mahaia berriz batzea zaila ikusten denez, Udaleko hiru sindikatuek plataforma bat osatu dute. Plataformak puntu batzuk adostu ditu eta alkateari eman dizkiote ezagutzera. Udalak ez badu negoziatzen, mobilizazioak egingo dituztela adierazi dute.

## Markoaldeko etxeak

Markoalden, Uharkape ondoan eraikitzen ari diren hiru etxebizitzek Udalak onartutako proiektua jarraitu ez dutenez, Udalak abisua eman die eraikitzaileei. Hasieran onartutako proiektu teknikoa zehatz-mehatz jarraitzea eskatu die Udalak eta horrela egiten ez badute, etxe horietara bizi izatera joateko lizentziarik ez dietela emango edierazi diete. Itxura denez, onartutakoa baino aprobetxamendu gehiago lortu da etxeak eraikitzerakoan

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

MARGOAK JUANMA
Margoak, paperak, gotelea e.a.
Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

comercial san juan
Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

# Bost udaltzain gehiago izango ditu laster Arrasatek

Laster bost udaltzain gehiago edukiko ditu udaltzaingoaren lan taldeak. Arrasateko kale eta auzoetan udaltzainen presentzia areagotu dadin eta udaltzainen lan taldea osatuz joateko gehitu nahi da kopurua. Taldea handituz, ordu eta egun guztietan ziurtatu nahi da udaltzainen gutxienezko presentzia.



Ordu eta egun guztietan Udaltzainen gutxienezko presentzia ziurtatu nahi da.

Orain hamalau udaltzain daude baina sartu ziren azken biak aldi baterako bakarrik kontratatuta daude eta beste bik azokan egiten dute lan. Udaltzainak astelehenetik ostiralera arte bi errelebotan aritzen dira, goizeko 6.30etatik 9.30etara. Zapatutan, ostera, eguerdiko ordubietan bukatzen dute lana, beraz astebukaeretan ez dute zerbitzurik eskaintzen. Udaltzainen zereginak herriko trafikoa zuzentzea, hirigintzako espedienteak betetzen diren egiaztatzea eta alkatetzaren bandoak betearaztea dira besteak beste. Jaiak izaten direnean ere zerbitzua eskaintzen dut. Kopurua gehituz, tabernetako zarata eta ordutegia dela eta astebukaeretan izaten diren arazoei irtenbidea eman nahi zaie. Gainera, gauetan zaborra jasotzerakoan trafikoarekin izaten diren gorabeherak zuzendu nahi dira, autoak askotan lan horretarako oztopo izaten dira eta. Dena dela, asmoa apurka-apurka lan taldea gehituz joatea eta udaltzain bakoitza arlo baten espezializatzea dira.

Apirilaren 12an egin zen udal plenoan aurrera atera zen lantaldea gehitzearen asmoa, nahiz eta EAJk aurka bozkatu eta PSE-EEk gaia hurrengo udalbatzak erabaki beharko lukeela adierazi.


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- **Minbiziaren diagnostiko goiztiarra**
- **Ekografia**
- **Mamografiak**
- **Bularreko patologiaren unitatea**
- **Menopausia**
- **Haurdunaldiaren kontrola**
- **Zitologiak**
- **Etab.**

***Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura***

**Doktoreak:** **CRISTOBAL**
**ESTOMBA**
**GOMEZ**
**MURGIONDO**
**OTALORA**
**RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**





**Ostiral Santuan Gurutz bidea egin zen Arrasaten. Jendeak bikain erantzun zuen nahiz eta herria erdi hutsik egon eta goizeko 8etan Portaloian arrasatear asko elkartu zen Ostiral Santuko ekintza erlijiosoa burutzeko.**



***San Andres auzoan "Fontaneria Aretxabaleta" futbol taldea*** *dago. 9 urtetik 11urte bitarteko mutilek osatzen dute taldea eta Aste Santuan Trofeo Girondin de Burdeos jokatu dute Frantzian, jokatu eta irabazi. Jose Mari Sanchez eta Luis Mari Uribesalgo entrenatzaileak arro daude euren mutilek egindako lanarekin. Egia esateko pozik egoteko arrazoirik badute!*

## IZEN PROPIOAK

● **Jose Jaime Bengoa** 27 urte arrasatearra da ARKOko lehendakari berria. Jose Jaimek Ingeniaritza ikasi zuen Eskola Politeknikoan eta Coprecin egiten du lan. Jose Jaimek Iñaki Aranburu ordezkatu du. Lehendakariorde berria **Iñaki Bordes** da, Idazkaria **Arantza Ozaeta** eta diruzaina **Xabier Etxebarria.**

● Arrasateko suhiltzaile bolondresak hauek dira: **Agustin Berecibar, Juan Jose Diaz, Juan Carlos Garcia, F. Jabier Garcia** eta **Juan Jimenez.**

● **Luis Fernandez**ek, 28 urteko eibartarrak "Tetris" liburua kaleratu du. Luisek kazetaritza ikasi zuen Leioan. ARRASATE PRESSen urte betez egin zuen lan eta orain Euskaldunon Egunkariako kazetaria da. Liburua artikulo desberdinez dago osatuta, ARRASATE PRESS, Argia, Egin eta Egunkarian argitaratutako artikulu batzuk jasotzen dira bertan.

PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

MAIATZAN solariumerako eskaintza berezia. 10 sesio=11.000 pta eta bat doan!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK
- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murritzailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA
- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE




**Jon Basurto**k omenaldi berezia jaso zuen Urbina Maltzaga eta Askatuaken arteko partiduan. Basurkok lan handia egin du herriko saskibaloiaren alde eta egindako lana eskertzeko merezitako omenaldia eskeini zioten saskibaloiko lagunek.





***San Frantzisko Xabier Ikastolako I.E.E. ko 2. mailako ikasleak apirilaren lehenengo astean ikasbidaian Katalunia ezagutzera joan ziren eta tremendo pasa ei zuten. Ikasbidaietan ez dago txarto pasatzerik, ezta?***



**Udal Euskaltegian** ari diren bi taldetako ikasleak barnetegian izan dira Gaztelun bost egunetan. Beste ekintza batzuen artean Jose Mari Gorrotxategi gozogilearekin Tolosako Gozogintza museoan egon ziren.

JUAN IGNACIO MONTIANO Dk.

PEDIATRA

"San Martin Osasundegia"
Ramón Mª Lili, 2

BERGARA
Tfnoa: 76 59 39 Faxa: 76 25 72

**LANPOSTUAK**

**Unzueta Jatetxeak** hurrengo lanpostuak betetzeko pertsonak behar ditu:

- Sukaldari laguntzailea.
- Kamarero.
- Asteburuetarako laguntzailea.

Harremanetarako dei egin (945) 44 50 95 tfnoara.

# ZALDIBAR Futbito 94-95
# ZALDIBARKO Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoi taberna eta Arrasate Kirolak



## Bigarren fasea bukatzeko jardunaldi bakarra falta

**Bigarren fasea bukatzeko jardunaldi bakarra falta da eta dagoeneko talde batzuk lortu dute hirugarren faserako txartela. A eta E multzoetan sailkatuko diren taldeak erabakita daude. A multzoan Argi Ibilik, Perrahotsak, Equs BTRk eta Orlando Piratasek lortu dute hurrengo fasera pasatzea. E taldetik Suministros Ugarte, Adelaida Haizea, Trikiti eta Mikelos izango ditugu hirugarren fasean. B taldean Los Heredia eta AC Surcosek lortu dute sailkatzea eta beste bi postuak hiru taldeen artean erabakiko dira; Pub People, Irati STS eta Sokoakoak. Irati STSk AC Surcosen kontra jokatuko du domekan eta Pub People eta Sokoakoak elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak astelehenean. Emozioz betetako partiduak izango dira zalantza barik. D taldean, Zuloak, Cerveceria Leintz eta Fosforosek lortu dute sailkatzeko behar dituzte diren puntuak. 4. postua Petroleros eta Totemen artean erabakiko da. Talde biek elkarren kontra jokatuko dute zapatuan eta Totemek nahi eta nahiez irabazi egin behar du sailkatzeko.**

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

# Bigarren fasea

**A taldea**

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ARGI IBILI | 6 | 6 | 0 | 0 | 39 | 9 | 12 |
| PERRAHOTSA | 6 | 4 | 1 | 1 | 22 | 15 | 9 |
| EQUS BTR | 6 | 3 | 2 | 1 | 32 | 23 | 8 |
| ORLANDO PIRATAS | 6 | 3 | 0 | 3 | 21 | 23 | 6 |
| ARTZANKOS UDALAITZ | 6 | 1 | 2 | 3 | 22 | 28 | 4 |
| LOS DIMY | 6 | 0 | 3 | 3 | 17 | 23 | 3 |
| HIREI | 6 | 1 | 1 | 4 | 21 | 42 | 3 |
| PEPELUS | 6 | 0 | 3 | 3 | 16 | 27 | 3 |

**B taldea**

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| LOS HEREDIA | 6 | 3 | 2 | 1 | 31 | 20 | 8 |
| AC SURCOS | 6 | 4 | 0 | 2 | 40 | 16 | 8 |
| PUB PEOPLE | 6 | 3 | 2 | 1 | 24 | 29 | 8 |
| IRATI STS | 6 | 3 | 1 | 2 | 26 | 23 | 7 |
| SOKOAKOAK | 6 | 3 | 0 | 3 | 24 | 27 | 6 |
| D. A. IRIZTU | 6 | 2 | 1 | 3 | 21 | 36 | 5 |
| LORATEGI POTROAK | 6 | 1 | 1 | 4 | 19 | 28 | 3 |
| MSM INGENIER | 6 | 1 | 1 | 4 | 18 | 24 | 3 |

**D taldea**

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ZULOAK | 6 | 5 | 0 | 1 | 26 | 12 | 10 |
| CERV. LEINTZ | 6 | 4 | 1 | 1 | 26 | 14 | 9 |
| FOSFOROS | 6 | 4 | 1 | 1 | 35 | 13 | 9 |
| PETROLEROS | 6 | 3 | 1 | 2 | 22 | 18 | 7 |
| TOTEM | 6 | 2 | 1 | 3 | 18 | 17 | 5 |
| NUEBO TABERNA | 6 | 1 | 1 | 4 | 17 | 30 | 3 |
| OJO AVISORE | 6 | 1 | 1 | 4 | 17 | 32 | 3 |
| BUKANAK | 6 | 1 | 0 | 5 | 20 | 45 | 2 |

**E taldea**

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| SUM. UGARTE | 6 | 5 | 1 | 0 | 31 | 8 | 11 |
| ADELAIDA HAIZEA | 6 | 4 | 2 | 0 | 18 | 7 | 10 |
| TRIKITI | 6 | 3 | 2 | 1 | 15 | 8 | 8 |
| MIKELOS | 6 | 3 | 1 | 2 | 18 | 11 | 7 |
| ZOTZ | 6 | 1 | 2 | 3 | 15 | 15 | 4 |
| KE OXTIAS | 6 | 1 | 1 | 4 | 11 | 24 | 3 |
| AUTOS MURU | 6 | 1 | 1 | 4 | 7 | 19 | 3 |
| GANBELAS | 6 | 1 | 0 | 5 | 5 | 28 | 2 |

## Uribe auzoako Futbito Txapelketa

**A Taldea**
- Leya ........................8
- Exc Lete ....................8
- A Las 9 No ..................8
- Berza Mutante II ..........8
- Munar Txiki..................5
- La Banda......................5
- Borrock'n roll...............3
- DKB.............................2
- Energizer......................2
- Holokaustro Kanibal .1
- CD Arko........................0

**B Taldea**
- Jotakabau..............10
- Arrasate Kirolak 9
- Tronkoteak ..............8
- Blacburn ..................7
- Trotabares................6
- Eztanda egin arte ...11
- Los Intocables .........4
- Amaral......................1
- Baneuko ...................1
- Pier Nodoyuna .........0
- Orkatz.......................0

**D Taldea**
- Uglys Txinato ...........9
- Equs BTR..................6
- Los Dimy ..................6
- Ke Oxtias..................6
- Gazte Txokoa............6
- Balon Rojo................5
- Arrasate Zoo ............4
- No Comment.............3
- Astoen Billa .............2
- Garajauke.................1
- Eman Bidea..............0

**E Taldea**
- Koka Juniors ............9
- Kamasutra.................8
- The barrio..................8
- Borrock'n Roll Promesas .6
- Hirei..........................6
- Dribling .....................5
- Ganbelas....................4
- Extintor Foruen..........2
- Telleria Auto Eskola..2
- Lo + X.......................0
- kurtze Txiki...............0

**F Taldea**
- Salenco y Konpañia .9
- Lautherbrunnen........9
- Gallinero...................7
- Bodega Anboto ........7
- Txeyenex...................5
- Iluna Taberna ...........4
- Corazon de Encina...4
- Sukar.........................2
- Elisabeth ..................1
- Euskal Suporters......0

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Baster-alde

Jatetxea
Denboraldiko platerak, giro onenean
Galartza auzoa ARETXABALETA
Tfnoa: (943) 79 24 58

# Debalde

4.

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g – 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 – Faxa: 76 08 19

**Argitaratzaileak:** ARRASATE PRESS, BERRIGARA, ELGOIBARREN, ...ETA KITTO!
**Publizitatea:** Imanol Amiano eta Antxon Iriondo
**Tirada:** 19.000 ale

Deba Bailarako
BANATZAILEA



Berezano auzoa, z/g
☎: 78 25 92 - 78 19 50
OÑATI

AMETS



- Hergo, Hobby eta Caravelair karabanak,
- Riviera autokarabanak
- Erremolkeak

SALMENTA ETA ALOKAIRUA

Kanping eta karabanentzako osagarriak




SUKALDEKO ALTZARIEN ETA ELEKTRAGAILUEN ERAKUSKETA

Alpe

MASTER



Mariarats, 4
☎ eta Faxa:
88 86 84
20200 BEASAIN



# Iragarki Merkeak

## ETXEBIZITZAK

– Pisua salgai Eibarren. Ditu 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. ☎ **10 37 66**

– Deban etxea salgai. Herri barruan. 3 logela, 2 komun, saloia eta sukaldea dauzka. ☎ **19 25 36 eta 701168.**

– Etxebizitza daukat Jakan, udan alokatzeko. ☎ **74 15 22.**

– Pisua alokatzen dut Elgetan. Deitu bazkalorduetan. Arrate. ☎ **70 13 94.**

– Beste lagun batzurekin batera pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Eskoriatzan. Deitu gauez. ☎ **79 09 11**

– Ikasleendako etxea alokagai. ☎ **79 59 63**

– Baserria salgai Elosun. ☎ **76 57 24**

– Pisua salgai Zumaian. ☎ **76 44 53 eta 74 31 81**

– Pertsona bat behar dugu pisu bat osatzeko Donostian (Amaran). Deitu gauez. ☎ **61 93 14**

## SALEROSKETAK

– Braco aleman txakurrak saltzen dira. ☎ **76 10 79**

– Lorito bat saltzen dut kaiola haundi batekin batera. Txomin. ☎ **74 26 32**

– Opel Corsa Swing 1.2 bat saltzen dut. 5 atekoa. Oso egoera onean. SS-AB matrikula. ☎ **75 60 32**

– Suzuki DR 350 motorra salgai, SS-AM matrikula. ☎ **76 12 69**

– Tandem bat gustora alokatuko nuke udarako. Ahal izan ezkero, mountain-bike tandema izatea gustatuko litzaidake. Iñigo. ☎ **70 05 97.**

– Korredorezko Biondi bizikleta salgai. Oso merkea. Josu. ☎ **76 49 30**

– Kanping denda saltzen dut. Oso handia da eta egoera onean dago. ☎ **74 15 22.**

– Gimnasiako Van Hallen ekipoa salgai. 4etatik 7'30etara deitu. ☎ **76 11 43**

– Musika bateria salgai, ia berria. ☎ **76 08 58**

– 3,5 pulgadako disketeradun ordenagailu eta inpresora bat erosiko nituzke. Unai. ☎ **74 07 30**

– Reflex Minolta argazki kamara salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ **76 04 15**

– Ezkontzarako emaztegai jantzia salgai. Prezio interestarria. ☎ **10 81 59.**

– Matrimonio logela osoa, 90eko bi ohe dituen logela osoa, matrimonio logela puente bat, sala osoa eta sukalde oso bat saltzen ditut trasladoagatik. 1tik 3etara eta 7'30etatik 10etara deitu. ☎ **74 33 19**

– Etxea jazteko edozein altzari eta elektragailuak behar ditut. Oso gustora hartuko nituzke zuk botatzeko dituzunak. ☎ **71 52 45**

## LANA

– Etxerako interna zerbitzua behar duzu? Deitu. ☎ **10 30 03.**

– Etxeetan lanak egingo nituzke edo umeak zaindu. Mª Angeles. ☎ **10 03 07.**

– Umea zaintzeko pertsona euskalduna behar da. Dei egin eguerdiko ordu 1etik ordu 2etara. ☎ **77 13 30**

– Puerikultura laguntzailea esperientziaduna umeak zaintzeko gertu. Batez ere ume txikiak. ☎ **79 32 39**

– Esperientziadun emakume heldua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **79 23 54**

– Genealogia egiteko historialaria eskaintzen da. 20,00etatik aurrera deitu. Arkaitz. ☎ **88 30 72.**

– Karta astralak egin eta tarotekoak botatzen dira. Javier. ☎ **76 07 87**

## BESTELAKOAK

– Atzerriko jendea hartzeko familiak behar dira. Interesatuta bazaude dei egin. ☎ **79 01 32**

– Gay edo lesbiana al zara? Bizitza guztia ezkutuan pasa behar al duzu? Ez dezala inork zure sexualitatea muga, erakutsi zure maitatzeko gaytasuna. Zure zain gaude. **128 P.K. 20700 Zumarraga**

– 35-45 urte bitarteko jendea ezagutu nahi nuke, gizon nahiz emakumezkoak, mendizaleak, astebukaeretan mendi irteerak egiteko. Deba Behea ingurukoak. ☎ **76 31 35**


Manuel J. Perona

ORTODONTZIA EGOKITUA ZEUREТZAKO

EE.BB.ko Kaliforniako
Roth Williams Center-en diplomatua
R.P.S. 216/94

Haur eta Helduen Ortodontzia

DATO, 19 - 1.
Tfnoak: (945) 23 29 61 / 23 32 12
01005 GASTEIZ

MOBILHOMENTZAKO PARTZELAK SALGAI
Baldintzak bereziak
LIZARRA
Kanpina
Informa zaitez
Tf: (948) 546436





BRIKOLAJEA
BASOCO
Etxeko artistarentzat





Elektrizitatea
Sukaldeak
Burdindegia
Kit armairuak
Koadroentzako enmarkeak
Taula ebaketa
Eskulanak

Arana, 26 Tfnoa: 945 - 27 09 33





MEDIKUNTZA ALTERNATIBORAKO
GABINETEA

Gasteiz-Vitoria Tfnoa: 945 - 14 83 48

# SUP'T.G.

Ecoles Supérieures des Techniques de Gestion

REIMS-eko GROUPE ESC-ren Frankiziarekin

# GESTIO ESKOLA

## KULTURA, GESTIO TEKNIKAK, JARRERA-BALOREAK ETA PROFESIONALIZAZIOA OREKATZEN DITUEN (LAU URTEKO) GOI-MAILAKO IKASKETAK



(GESTIO ESKOLA kokatuta dagoen IMH-ren ikuspegia)

GURASO ETA IKASLE INTERESATUENTZAT,
INFORMAZIO SAIO IREKIA:

MAIATZAK 4,
ARRATSALDEKO 7tan

Deba Behea

INFORMAZIO ETA IZENEMATEAK:

GESTIO ESKOLA
SAN ROKE AUZOA, 1
20870 ELGOIBAR
TFNOA: 744132

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Departamentua

EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRI ETA ENERGI SAILA

GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
Merkataritza Industria eta Itsasketa

ADEGI
Gipuzkoako Entrepresarien Elkartea

TEKNIKER
Teknologi Ikerkuntzarako Ze

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

kutxa
gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

IBERDROLA

LKS

EROSKI




KUTXAREN
HIPOTEKA

# ETXEBIZITZA EROSTEKO MODURIK ERRAZENA

Hipoteka baten bila dabiltzan guztiei, KUTXAren HIPOTEKA aurkezten diegu. Urte askotako geure esperientzia guztia bere baitan biltzen duen hipoteka. Arazoak konpontzeko pentsatutako hipoteka. Ez arazoak sortzeko.

INTERES-TASArengatik.

AMORTIZAZIO-EPEArengatik.

FINANTZAKETA-ZENBATEKOArengatik.

Eta ZERBITZURIK ONENA eta AHOLKULARITZARIK OSOENA eskaintzen dizugulako. "ETXEBIZITZA EROSTEKO GIDALIBURU ERRAZA" barne dela, gure edozein bulegotan eskura dezakezuna.

Etxebizitza erosteko modurik errazena sakon-sakonetik ezagutu nahi baduzu, zatoz zeure ohiko KUTXA bulegora edota deitu 900 41 20 20 telefonora. Eta hitzegingo dugu. Hipoteka

kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián



**Zaldibar txapelketan hiru partidu garrantzitsu jokatuko dira 8. jardunaldian. Zapatuan goizeko 11etan Totem eta Petrolerosen arteko partidua jokatuko da. Igandean 12etan Irati STS eta AC Surcos izango dira lehian eta astelehenean ordu batean Pub People eta Sokoakoak.**

## ZALDIBARKO EMAITZAK

**A Taldea**
Argi Ibili 3 - Perrahotsa 0
Equs BTR 4 - Los Dimy 4
Orlando Piratas 6 - Hirei 3
Pepelus 2 - Artzankos Udalaitz 4

**B Taldea**
Irati STS 3 - Sokoakoak 2
AC Surcos 12 - Pub People 0
MSM Ingenier 3 - Los Heredia 3
D. A. Iriztu 6 - Lorategi Potroak 5

**C Taldea**
Nuebo Taberna 2 - Petroleros 4
Fosforos 3 - Totem 3
Zuloak 3 - Cer Leintz 2
Bukanak 3 - Ojo Avisore 7

**D Taldea**
Adelaida Haizea 3 - Ke Oxtias 0
Sum Ugarte 10 - Ganbelas 0
Trikiti 3 - Mikelos 2
Autos Muru 1 - Zotz 0

## BELARRIRA

◆ **Zigorra.** Ojo Avisore taldeko Azkunagak eta Sokoakoak taldeko Enekok bi partiduko zigorra bete beharko dute epailearekin tirabirak izan zituztelako. Bestalde, Fosforos eta Cerveceria Leintzeko beste bi jokalari zigortu dituzte arrazoi berberagatik.

◆ **Epaile berriak.** Nuevo tabernakoek Orlando Piratas eta Hirei taldeen arteko neurketa epaitu zuten zapatuan goizeko 9etan. Nuevo tabernakoak behin baino gehiagotan kexatu dira epaileen arbitraiak direla eta. Horregatik antolatzaileek epaile lanean nola moldatzen diren ikusteko partidua arbitratzeko aukera eman zien. Esan behar da desberdintasuna ez zela nabaritu.

◆ **Atsedena.** Uribe-Auzoa txapelketan bost taldek izango dute atsedena asteburu honetan: Berza Mutante II, Orkatz, Eman Bidea, Telleria Auto Eskola eta Lauther-brunnen.

Astelehenean Zaldibar eta Uribe Auzoa txapelketetan partiduak jokatuko dira.

ECUADOR
Bidaiak
Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan
Ez galdu aukera!
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

YOSU THERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate gorena leihoetan
LANTEGIA ETA ERAKUSKETA
Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



## Sokoakoak eta Irati STS taldeei abisua

Sokoakoak eta Irati STS taldeek elkarren kontra jokatu zuten zapatuan eguerdiko 12etan. Partiduan ez zen arazorik egon eta Iratik 3 eta 2 irabazi zuen. Partidu ondoren bazkaria izan zuten bi taldeek eta bazkari aurretik poteoa. Tabernaz taberna poteatzen ari zirela Aizkora epailea ikusi zuten eta denetarik esan zioten jokalariek. Antolatzaileek gertatutakoaren berri izan eta segituan talde biak txapelketatik kanpo uztea erabaki zuten baina Aizkora erabakiaren kontra azaldu zen. Kontuak kontu, Irati STS zein Sokoakoak Aizkorari eskerrak emateko moduan daude, beragatik izango ez balitz, txapelketatik kanpo egongo lirateke eta.

## ASTEBURU HONETAN ZALDIBARREN



**ZALDIBAR**
**Larunbata 29**

| | |
|---|---|
| 10.00 | Zuloak - Bukanak |
| 11.00 | Totem - Petroleros |
| 12.00 | Lorategi Potroak - Los Heredia |
| 13.00 | MSM Ingenier - D. A. Iriztu |
| 14.00 | Artzankos Udalaitz - Hirei |
| 15.00 | Ojo Avisore - Cer. Leintz |
| 16.00 | Adelaida Haizea - Sum. Ugarte |
| 17.00 | Ganbelas - Ke Oxtias |
| 18.00 | Nuebo taberna - Fosforos |

**ZALDIBAR**
**Igandea 30**

| | |
|---|---|
| 11.00 | Orlando Piratas - Pepelus |
| 12.00 | Irati STS - AC Surcos |
| 13.00 | Los Dimy - Perrahotsa |

**ZALDIBAR**
**Astelehena**

| | |
|---|---|
| 11.00 | Trikiti - Autos MUru |
| 12.00 | Argi Ibili - Equs BTR |
| 13.00 | Pub People - Sokoakoak |

# ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

**SAKONTZE MAILA**



- Ikastaro egunak: maiatzak 8, 9, 10, 15, 16, 17, 22, 23,' 24 eta 25.
- Ordutegia: 7.15etatik 9.15etara.
- Matrikula: 3.500 pta / 2.000 pta ikasle eta langabetuentzat.
- Informazioa eta izenematea: Gazte Bulegoan. Tfnoa: 77 00 65.

*Antolatzaileak* ASA taldea — arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

*Daniel Landart*

# Iparraldeko giroa liburuetan agertu nahien



**Baxenafartarra da Daniel Landart idazlea, Donostiri herrian jaiotakoa 1946an. Osasun arazoak medio, gazterik utzi behar izan zuen eskola eta lanean jarri. 14 urterekin inprenta baten hasi zen lanean, makinetan. Handik bi urtera idazteari ekin zion, lehenik frantsesez, euskaraz beranduago. Arrasaten egon da orain gutxi.**

**- Zergatik idazle?**

- Inprentan lanean nengoen, eta han , beste gauza batzuen artean, egunkari bat egiten zen, frantsesez. Orduan idazten hasi nintzen, frantsesez hasi ere, baina 17-18 urterekin, gero euskaltzain bihurtuko zen Jean Hiriart Urrutiren eraginez, euskaraz idazteari ekin nion. Berak esan zidan euskalduna izanda euskaraz idatzi beharko nuela, baina nik ez nekien euskaraz idazten eta berak alfabetatu ninduen.

**- Eta emaitzak?**

- Bereziki antzerkiak idatzi ditut, 14 guztira, Bidasoaz bi aldeetara eman izan direnak; lehen liburua 1968an agertu zen "Hogoi urte". Antzerkien laburtzapenak, sketch modura ipini nituen, AEKn eta Gaueskoletan erabiltzeko. "Erranak errak" eta "Aihen ahula" izenburuko liburuak ere idatzi ditut; bigarren hau 1978ko Durangoko Azokarako aurkeztu nuen eta arrakastatsua suertatu zen, 15 urtez 3 argitalpen egin dira eta. Orotara 5.000en bat ale saldu dira. Etnografia aldetik liburu aberatsa da, haurtzaroko oroitzapenak kontatzen ditut eta galdu diren edo galtzear dauden makina bat ohitura agertzen dira bertan. Adibidez, autorik ez zegoen eta gu igandeetan zaldi-karroan joaten ginen elizara, eta hori ez da joan den mendekoa; hori bezala, nola egiten ziren txerri hilketak....

Idatzi dudan azken liburua "Batita handia" nobela , 1993an Irun Saria irabazi zuena,Liburu honek nobela munduan aurrera egiteko kemena eman zidan eta orain beste batean ari naiz lanean.

Horretaz gain, Errobi edo Mikel Laboa moduko musikarientzat ere idatzi izan ditut poesiak ere.

**- Langile fina zara?**

- Ez, nagi samarra. Askotan bolada luzeak ematen ditut ezer idatzi barik eta ondoren, behar bada astebetez lanean jo ta ke aritzen naiz; beste batzuetan, aldiz, goiz osoa idazten pasatzea erabakitzen dut eta hor ibiltzen naiz paper aurrean ez jartzeko aitzaki bila.

**- Badago diferentziarik Hego eta Ipar Euskal Herriko literaturaren artean?**

- Bai, oraindik han baserri-giroak agintzen du. Horrekin ez dut esan nahi gure sentimenduak eta ondorioz gure literatura atzera begira ditugunik, baizik eta errealitate baten ikuspegia agertu nahi dugula.

**- Orain gutxi Euskal Herriko 12. BIltzarra burutu da Saran...**

- Biltzarra deitzen da, baina azoka soil bat besterik ez da. Idazleok mahaiaren ostean egoten gara gure liburua sinatu, saldu edo aurkezten. Datorren urteari begira, bi eguneko ekitaldian bihurtu nahi genuke eta salmenta nolabait osatu, esate batera Euskal Herriko Idazleen Elkartearen Batzarra bertan egitea, idazle batzuren testu irakurketak egin,... arnas berria eman ekitaldi horri.

Biltzarra dela eta gogoratzen dut antolatu zen lehen Biltzarreko idazkariak Xabier Zubizarreta eta biok izan ginela, garai hartan Xabierrek poesiak idazten baitzituen.

**- Aldatuta aurkitu duzu Arrasate?**

- 1964tik ezagutzen dut. Urtean behin Iparraldeko gazte abertzaleok etortzen ginen kooperatibak bisitatzera eta 1969an astebete pása nuen bertan. Bolada bat etorri barik egon eta berriro itzuli nintzenean oso aldatuta ikusi nuen.

**- AED inguruko mugimendua ezagutzera etorri zara...**

- Lehendik ere ezagutzen nuen, baina bai horretara etorri naiz. Guretzat oso interesgarriak dira horrelako ekimenak, eta Iparraldean bada horren beharrik.

***"Iparraldean baserri-giroak agintzen du... eta idazleok errealitate horren ikuspegia agertu nahi izaten dugu".***

# Hirugarren adinekoen negu epelak

Maria Agirre

**Gehienontzat oporrak bukatu eta udazkena heltzen denean, hirugarren adinekoei maletak egin eta oporretara joateko ordua iristen zaie. Udazkenetik udaberrira bitartean, Mediterraneo aldeko paraje epeletara joan ohi izaten da hainbat pertsona, batez ere klima goxoaren bila eta ondo pasatzera. Gehienek gaztetan ez zuten bidaiatzeko aukerarik izan, baina orain ez dute kanpora joateko aukera galdu nahi.**

Bada denboralditxo bat herritik kanpo pasatzea erabakitzen duen hainbat arrasatear, nahiz eta bidaia agentzia bateko arduradunaren esanetan, azkenaldean hirugarren adineko arrasatear gutxiago joan kanpora. Etxetan langabezian norbait dagoelako edo beste kasu batzuetan ilobak zaindu behar izaten dituztelako, badira bai herriko mugak gainditzeko trabak izaten dituztenak.

Jesus Azkaratek eta Urberina Perezek oraingoz ez dute horrelako oztoporik izan eta aurten egun batzuk pasa dituzte Arrasatetik kanpo. Euren esperientzia gustora kontatzen dute, hirugarren adinekoen opor bidaiak zelakoak izaten diren ezagutzeko.

## BENIDORM BEZALAKORIK EZ

Jubilatuta dagoenetik, Jesus Azkaratek urteko hilabete batzuk herritik kanpo pasatzen ditu. Udazkena iritsi zenetik, Mediterraneo aldeko zenbait tokitan izan da eta Mallorka gogokoen duen arren, Benidorm bezalakorik ez dagoela aitortzen du. Urberina, berriz, orain dela zortzi urte kanpora joaten hasi zenetik, Benidorm-en baino ez da izan. Zerbaitegatik izango da! Bien ustez: "Benidorm beste mundu bat da".

Urberinaren berbetan: "paseatu, hondartzara joan, dantza egin eta nahi izanez gero ligatu egin daiteke Benidorm-en. Bereziki bikotea aurkitzera joaten den emakume edo gizon asko izaten den arren, horrek ez du esan nahi jende guztiak hori bilatzen duenik".

Emakume honi ere suhiek askotan jotzen diote adarra



Arrasatear koadrila honek hainbat leku bisitatu ditu azken urteetan. Argazkia Ibizan egina dago.

Benidorm-era doala jakiten dutenean: "ea bikotea aurkitzen duzun" -esaten diote, baina Urberina hondartzara joatearren, lagunekin ondo pasatzeko asmoz eta euskaldunen taberna batean ematen duten pintxoak jatera bakarrik joaten da. Hori bai, zenbait arrasatearrek Benidorm-en bikotea aurkitu duela esan digu emakume honek.

Jesus Azkarate ere ez da ligatzeagatik Benidorm-era joaten. Jesus emaztearekin joan izan da eta dagoeneko, arrasatearrez osatutako lagun kuadrila bat badute bertan. Horregatik, hondartzara joan eta paseoan ibili ostean, denek batera txikiteoa egiten dute bertan dauden euskaldunen tabernetan. Txikiteoan egiteko ohitura alde batera uzten ez duen euskaldun asko egoten delako esan ohi da Benidorm-eko kale batzuk Donostiako alde zaharraren antza dutela.



Lasai egotera joaten dira oporretan.



Jesus Azkarate.



Urberina Perez.



"Hirugarren adinekoen artean giro ona eta ondo pasatzeko aukera asko dagoen Benidorm da toki gogokoena eta ikustekoa izaten da pertsona nagusiek zein ondo pasatzen duten bertan" -dio Jesusek.

**KANPORA ZERTARA?**

Zer dago beste toki batzuetan herrian ez dagoenik? Horixe galdetzen du etxetik irtetzea gustatzen ez zaion askok. Jesusek esaten duen bezala, beste gauza batzuk legez bidaiatzea edo kanpora irtetzea gustatu egin behar den zerbait da. Etxera pozik bueltatzen diren arren eta Arrasaten pozik bizi direla aitortu arren, lagunak egin, beste paraje batzuk ezagutu eta neguari hilabete batzuk kentzea dira kanpora irteteaaren abantailak bi lagun hauen ustez. Urberinaren iritziz ez dago etxeko atea itxi eta "banoa" esatea bezalakorik eta gainera kanpoan izandakoan gero gustorago bueltatzen ei da etxera. Jesusek dioenez, Arrasaten zer egin badago baina toki turistikoetan beste giro bat izaten da. Batez ere negua epelean pasatzearren, hemengo hezetasunetik ihesi eta klima goxoen bila joaten dira hirugarren adinekoak. Batzueri on egiten die hondartzako urak, besteek katarro gutxiago harrapatzen dute klima epeletan, eta horretarako eguraldi ona seguru izaten den tokietara joan beharra dago eta horretan Benidorm da nagusi. Nonbait eguzkiari ere Benidorm gustatu eta ez du kale egiten.

**INSERSOREKIN EDO BESTELA**

Normalean hirugarren adinekoei nahiko merke ateratzen zaie kanpora irtetzea. "Mundo Social" delakoak (Inserso izenez ezagutzen denak) bidaia merkeak antolatzen ditu eta horrez gain garestiagoak baina poltsikorako eskuragarriak izaten diren beste bidaia batzuk ere izaten dira.

Insersok eskaintzen dituen aukerak irailean ematen dira ezagutzera. Irailetik maiatzera arte Insersorekin bidaiatzeko aukera izaten da baina horretarako garaiz ibili beharra dago eta nahiz eta udaberrian bidaiatzeko asmoa izan, lehenbailehen joan behar da bidaia agentzietara. Arrasateko Bascotour agentziak, adibidez, Insersoren 150 bidaia inguru banatu zituen iaz baina aurten Gipuzkoako agentzietan arazoren bat izan dela eta, 50 baino ez ditu banatu ahal izan. Hala ere beste pertsona batzuk agentzien eskaintzak bilatzen dituzte nahiz eta gehiago ordaindu. Insersorekin 23.000 pezeta ordainduz Benidorm-en hamabost egun pasa daitezke eta beste agentzia batzuekin 36.000 pezeta ordaindu behar izaten da. Bascotour agentziako arduradunaren esanetan: "normalean Insersok eskaintzen dituen hotelak handiak izaten dira eta batzuk gustora ibiltzen diren arren, asko izaten da Insersorekin joan nahi ez duena. Horregatik Insersorekin joaten den adina lagun joaten da agentzia batzurekin ere". Gure bi protagonistek merke-merke Insersorekin bidaiatzeko aukera izan dute eta Jesus Azkarateren esperientzia ona izan zen arren, Urberina aurten Insersorekin joan da eta ez da etxera pozik itzuli.

Egunotan Jesus Azkarate maletak egiten ari da, laster Mediterraneo aldera doa eta. Urberinak, berriz, datorren urtean bere ametsa betetzea espero du: Mallorkara joan. Nabaria denez behin ateratzen denak errepikatu egiten du.



Txus Brizuelaren mutilek ezin dute kale egin eta dakiten bezala jokatu beharko dute.

# Urbina Maltzagaren etorkizuna Leonen erabakiko

Urbina Maltzaga jeitsiera faseko Play off-a jokatzen ari da Leon taldearen kontra. Play off-a bost partiduetan erabakiko da eta dagoeneko bi partidu jokatu dira. Ostiralean lehen neurketa jokatu zuen Arrasateko taldeak eta hiru tantuko aldeaz galdu zuen Urbina Maltzagak 72 Elmar Leonek 75. Partidua gogorra eta tentsioz betetakoa izan bazen ere, joku eskasa erakutsi zuten bi taldeek. Domekan berriz, bigarren partidua jokatu zuten Iturripen eta nagusitasun osoz Urbina Maltzagak 88 eta 68 irabazi zuen. Lehen zatiko minutu askotan markagailua Leondarren aldekoa izan bazen ere, atsedenera berdinketarekin joan ziren bi taldeak. Bigarren zatiko azken minutuetan Urbina Maltzagakoak jaun eta jabe izan ziren; horrela bada, taldeak 20 puntuko aldeaz irabazi zuen. Garaipen garrantzitsua eta beharrezkoa EBA ligari eusteko. Domekako partiduan Iñaki txintxurretak egindako lana azpimarratu behar da, taldeko saskiratzaile onena bilakatu zen 31 puntu lortuz.

Jeitsiera faseko bi partidu jokatu direnean talde biak parekatuta daude. Ostiralean hirugarren neurketa jokatu beharko dute Leonen arratsaldeko 8etan. Partidua erabakiorra, hil ala bizikoa izango da eta irabazten duen taldeak aukera asko izango du EBA ligan jarraitzeko. Urbina Maltzagak partidua galduko balu, oraindik domekako neurketa izango luke kanporaketa berdintzeko. Neurketa arratsaldeko 6etan jokatuko da Leongo kiroldegian. Arrasateko taldeari gerta dakiokeen gauza onena neurketa biak irabaztea da. Leonen ere berdinketa gertatzen bada partidu erabakiorra Iturripen jokatuko da maitzaren 7an.

Urbina Maltzagako jokalariak bigarren partiduan lortutako garaipenarekin itxaropentsu daude eta Leongo partidu biak irabazteko gauza izan daitezkeela uste dute.

## LABURRAK

### Txirrindularien lasterketak

Dorletako Ama eskolako txirrindulariek hainbat lasterketa izango dute asteburu honetan. Lehen eta bigarren mailako jubenilek Arantzazuko igoera izango dute zapatuan arratsaldeko 4.30etan. Igoerak 9, 3 km ditu. Astelehenean erlojuz-kontrako Gipuzkoako txapelketan hartuko dute parte Ordizian. Egin beharreko lana 53 kilometro eta txapelketa arratsaldeko 3.30etan hasiko da. Bigarren urteko kadeteek Bergarako lasterketan izango dute zita, domekan goizeko 10etan. Lehen urteko kadeteek 42 kilometroko Urretxuko lasterketa jokatuko dute zapatuan arratsaldeko 4.30etan. Infantilek, berriz, Gipuzkoako txapelketa infantil eta alebin mailan Andoainen zapatuan arratsaldeko 4.30etan.

### Mondra eta Alaves Atxabalpen

3. mailako Mondrak Alaves taldearen bisita jasoko du domekan Atxabalpen. Partidua arratsaldeko 4.30etan hasiko da. Mondrak 34. jardunaldia jokatu duenean sailkapeneko 11. tokian dago 33 puntu eta negatibo bakarraz. Denboraldia bukatzeko hiru neurketa falta zaizkio, bi kanpoan jokatu ditu Urola eta Elgoibarrekin eta bakarra etxean Touringen kontra.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
MARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

ARGI PLASTIC
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30


KAFE
APIRILA
28an (ostirala/viernes)
Grupo Saltimbanqui (Mexiko)
"Cuentos de tradición indígena"
29an (larunbata/sábado)
Bululu Théatre (Frantzia)
"El ciego, el títere, la muerte, el escultor, el idiota, una historia de amor" (7 istorio)
Arrasateko Udala Kultura Saila
MAIATZA
5ean (ostirala/viernes)
Lourvier´s (Donostia)
"Lourvier´s Saloon"
6an (larunbata/sábado)
Ñake (Gasteiz)
"Pocos y mal avenidos"
Laguntzaileak:
Auzolagun E. Koop. eta Aterpe taberna
antzerkia
AMAIA ANTZOKIAN
Gaueko 10.30etan • Sarrera: 500 pta. (Gazte Txartelarekin: 400 pta.). SARRERAREKIN KAFEA DOAN.


LORAMENDI KIROLAK
Eskaintza berezia!
Avia 968
9.995 pta
Air Alpha Trainer
11.995 pta
Air Max
16.995 pta
Air Pegasus
10.990 pta
J. R. Edge Trainer
6.495 pta
Versatile
7.995 pta

# 8. Mailako Ikasle eta Gurasoentzat

## Informazio Bilera











## GAIAK

- Batxilergo orokorra.
- Goi Batxilergoa.
- Geroko irtenbideak.

Eguna: maiatzak, 2
Lekua: Almen
Ordua: 6etan

ALMEN
IKASTOLA

# Arrasatek brontzezko domina 4x400 erreleboan

Juan Carlos Martin, Martin Davila, Aitor Arnaiz eta Manu Anguasek Gipuzkoako Txapelketako 4x400 erreleboan hirugarren ppostua lortu zuten, brontzezko domina beraz.

Taldekako Txapelketa hau Anoetan burutu zenpasa den asteburuan. Gipuzkoan 30 talde egon arren, txapelketara 7 bakarrik aurkeztu ziren. Talde bakoitzak atletismoan dauden 21 modalitatetik 17 egin behar izan zituen. Arrasateko ordezkariek hiru frogetan ezin izan zuten parte hartu lesioak zirela medio: 10.000 metro, 10 km martxa eta pertigan. Gainontzeko frogetan Arrasatek izan zituen ordezkariak eta esan behar da lan bikaina eta maila handia erakutsi zutelan Arrasateko gazteek. Taldeka, berriz, Arrasate Kirolak taldea bostkarren tokian sailkatu zen 57 punturekin.



J. Carlos Martin, Martin Dávila, Aitor Arnaiz eta Manu Anguasek lortu dute brontzezko domina.

## FUTBITOA

### Futbitokoak Logroñoraino

Lehen mailako futbito taldekoek Promorioja taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan Las Gaunaseko kiroldegian arratsaldeko 6etan. Arrasate 13. tokian dago 15 punturekin. Narcisoren mutilak sailkapeneko zuloan daude sartuta; beraz, geratzen zaizkien 6 partiduetan ezingo dira lokartu. Partidu horietatik hiru etxean jokatuko dituzte Iveco, Gaztelueta eta Erandioren kontra. Horiek irabazita Arrasateko taldeak ez luke arazorik izan behar lehen mailari eusteko. Kanpoan beste hiru jokatuko dituzte Promorioja, Aluminios eta Castro Urdiales taldeekin. Denboraldia ekainaren 3an bukatuko dute Iturripen.

## EMAITZAK

**Futbola**

3. maila: Gasteizko Aurrera 1 - Mondra 0
Jub Ohorezko Liga: Mondra 7 - Lazkao 0
**Hurrengoak:**
3. maila: Mondra - Alaves. Igandea. 4.30etan. Atxabalpe.
2. erregionala: Aloñamendi - Mondra. Larunbata. 4.30etan. Azkoagain.( Kopa txapelketa)
Emakumeak: Mondra - Bizkerre . Larunbata. 11.45etan. Atxabalpe. ( Lagunartekoa).
Jub Ohorezko Liga: Mondra - Zumaiako. Larunbata. 4.30etan. Atxabalpe.
Lehen Kadeteak: Arrasate - Aloñamendi. Igandea. 11etan. Atxabalpe.

**Saskibaloia**

EBA Liga: Urbina Maltzaga 72 - Leon 75
EBA Liga: Urbina Maltzaga 88 - Leon 68
**Hurrengoak:**
EBA Liga: Leon - Urbina Maltzaga. Ostirala. 8etan. Leonen.
EBA Liga: Leon - Urbina Maltzaga. Igandea. 6etan. Leonen.

**Eskubaloia**

Lehen Territoriala: Arrasate 15 - Beasain 25
Kadeteak: Bergara 22 - Arrasate 8
**Hurrengoak:**
Lehen Territoriala: Ayerru - Arrasate. Igandea 12etan Lezo.
Kadeteak: Ordizia - Arrasate. Larunbata. 3etan. Ordizia.
Kadeteak: Arrasate - Urola. Astelehena. 11.30etan. Iturripen.

**Futbitoa**

Lehen maila: Arrasate 4 Danok Txokoa 6
Arabako territoriala: Arrasate 3 - Carniceria Saenz 4
**Hurrengoak:**
Lehenmaila: Promorioja - Arrasate. Larunbata. 6etan. Logroñon.
Arabako territoriala: Atletico Vitoria - Arrasate. Astelehena. 13etan. Gasteiz.

**Rugby-a**

Jubenilak: Eibar 35 - Arrasate 5
**Hurrengoak:**
Emakumeak: Durango - Arrasate. Lrunbata. 4etan.
Emakumeak: Getxo - Arrasate. Astelehena. 12etan.

**Pilota**

Harri arteko txapelketa:
Arrasate - Beasain. Infantilak ( 1-18), Jubenilak ( 22-3) eta Nagusiak ( 22 - 1).
**Hurrengoak:**
Beasain - Arrasate. Larunbata. 5etan. Beasain.
Deba Arroa:
Arrasate - Aretxabaleta. Infantil. Jubenil eta nagusietan. Larunbata.

PUB HAIZEA



Epelde
• Estudioa
• Ezkontzako erreportaiak
• Bideoa
• Argazkiak
Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71
Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23


# Kafe Antzerkia Amaiako hall-ean

Arrasateko Udalak, Auzo Lagun eta Aterpe tabernaren kolaborazioaz bat, Kafe Antzerkia antolatu du datozen bi asteburuetarako. Formato txiki eta normalean tabernetan egiten den antzerki mota hau ez da oso ezaguna gure herrian baina Udalak antolatu duen egitarauarekin, antzerkia sustatu eta Amaia antzokiko hall-a jaialditxo antzeko batzuren topaleku bilakatu nahi du: Kafe Antzerkirako sarrera ordaintzearen truke, kafea doan eskainiko da eta taberna zerbitzua zabalik izango da, giro polita sortuasmoz.



Asteburu honetan eta Taun Taun kolektiboaren laguntzaz, txotxongilo teknikak erabiliz, Mexiko eta Frantziako bi antzerki talde etorriko dira Amaiako hall-era.

### "Saltimbanqui" antzerki-talde mexikarra

Ostiralean gaueko 10.30etan "Cuentos de tradición indígena" antzezlana eskainiko dute. Talde honek hamabost urte darama lan artistikoan eta 1976tik gaur arte, Europa zein Amerikan, hamaika ikuskizun eskaini du kalean eta teatroetan. Ipuinaren bidez ohiturak, gertaerak, sinismenak, mundua ikusteko erak etabar trasmititzen ditu talde honek. Azkenengo aldiz Estatuan 1993ko Aragoiko Antzerki Ferian izan ziren eta lortu zuten arrakastaren ondorioz, bueltatzea erabaki dute.

Ostiralean eskainiko duten emanaldian, izenburuak dioen moduan, ahoz kontatutako Mexikoko ipuin eta kanta tipikoak eskainiko dituzte. Ikuskizuna, bi titiriterok ikuslegoa Mexikoko ahozko tradizioko ipuinak titereen ikuskizunaz gozatzera gonbidatzen dutela hasten da.

### "Bululu Théatre" frantziarrak

Horacio Peraltak, Parisen bizi den argentinarrak zuzendutako taldea dugu hau. Ertaroan "Bululú" izeneko titiritero ibiltari ospetsu bat imitatzen ei du. Duela mende batzuk "Bululú" mitikoak egin ohi zuen moduan, hirietako liburutegi, kafe eta teatroetan zehar ibiltzen da Horacio Peralta bere txotxongiloekin.

Argentinarrak antzerkia ikasi du Alejandra Boero eta Norman Briski-rekin. 1978an Parisa joan zen eta bertako metroen tuneletan bere ikuskizuna eskaintzen zuen bitartean, "bataiatu" zuen bere lana: "Bululú Théatre". Geroztik sari garrantzitsuak lortzen hasi zen: 1984an Frantzian, Caen-eko Festibaleko "Urrezko Sagarra" irabazi zuen, baita "Radio France International Theatre Vivant'92" sari nagusia ere, beste batzuen artean.

Horacio Peraltak Arrasaten eskainiko duen antzezlana, "El ciego, el títere, la muerte, el escultor, el idiota, una historia de amor" izango da, umorea, maitasuna eta sorpresak nahasten dituen antzezlana. Horaciok dioen moduan, "edozein pertsonari gertatu dakiokeen istorioa da.".

HILARION
Taberna-jatetxea
Kafetegia
• Eguneroko menua eta kartako menua
• Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...
Prezio guztiz eskuragarriak!!
Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

Zuri Garbiketak
• Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.
Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

# Etxean jasotzen duzun publizitatearen hizkuntz erabilea







# Idatzizko komunikabideetan hizkuntz erabilera Arrasateko berrietan







AED ELKARTEA

Arrasate Euskaldun Dezagun

# Fantasia eta Beldurrezko

# ZINE MARATOIA

**Apirilaren 30ean (igandea) • Arratsaldeko 4.30etatik aurrera**
**Amaia Antzokian • Sarrera: 500 pta**

**Santiago Segura eta Saturnino Garciak egitarauaren aurkezpena egingo dute.**

## Luzemetraiak

1. **"Countess Dracula".** 1970. Peter Sasdy. Britania Handia. 89'
2. **"Justino, un asesino de la tercera edad".** 1994. Luis Guridi eta Santiago Aguilar. Espainia. 95'
3. **"Return of the leving dead".** Part III. Brian Yuzna. EE.BB. 97'

## Laburmetraiak

1. **"Valley of the stereos".** 1992. George Port. Zelanda Berria. 15'
2. **"Kitchen sink".** 1989. Alison McLean. Zelanda Berria. 14'
3. **"Evilio vuelve. El purificador".** 1994. Santiago Segura. Espainia. 12'

Arrasateko Udaleko Gazte-zerbitzua

gm! gaztemaniak!

# Jesus Gonzalez

## Arraultza saltzailea



- **Nondik ekartzen dituzu arraultzak?** Ezkio-Itsasotik.
- **Zenbat urte Arrasateko azokara jeisten?** Hamarren bat.
- **Bakarrik arraultzak saltzen dituzu?** Bai.
- **Zenbat dozena eguneko?** Zaila da hori esatea, egunaren arabera.
- **Desberdintasun handia dago baserriko eta supermerkatuko arraultzen artean?** Bai; oiloak guk egindako pentsuarekin elikatzen ditugu eta.
- **Eragin handia izan dute supermerkatuek azoketan?** Nik ez dut salmentan aldaketarik nabaritu.
- **Baserriak ematen du bizi izateko aina?** Gero eta lan gehiago egin behar da berdina irabazteko.
- **Arriskuan dago azokan erosteko ohitura?** Ez dut uste ohitura hau galduko denik.
- **Noiz ezagutu duzu dozena bat merkeen?** Bitxia da baina orain 12 urte hasi nintzenean dozenaren prezioa gaur egungo berbera zen.
- **Zenbat da hori?** Garestienak 170 pzta.
- **Horrenbeste urtetan arraultza asko apurtuko zenituen... ?** Ez pentsa, ziur aski, zuk nik baino gehiago!
- **Arraultzak platerean... ?** Frijituak.
- **Zenbat motako arraultzak saltzen dituzu?** Bederatzi motakoak, tamainaren arabera.
- **Baserria edo hiria?** Baserria.
- **Mendi bat?** Txindoki.
- **Kiloko txuleta edo legatza saltsan?** Legatza saltsan.
- **Ardo gorria, zuria ala beltza?** Agujazko ardo gorria.
- **Bertsolari bat?** Ez naiz oso aditua gai horretan.
- **Indurain ala Lejarreta?** Indurain.

## LABURRAK

### Saloi Dantzak

EKIN Elkarteak maiatzeko ostegun guztietarako Saloi Dantzen ikastaroa antolatu du. Bi ordutegi desberdin izango dira aukeran: 3:30etan bata eta 6.00etan bestea. Ikastaroa AEDko lokaletan izango da eta matrikularen prezioa 1.000 pztakoa da. Izena eman nahi izanez gero, AEDra jo edo 771228 telefonora deitu.

### Jai gastronomikoa

Astean zehar Aita Menni ospitalean burutu den Kultur Asteari amaiera emateko, larunbatean jai gastronomikoa egingo da bertan. AEDko talo egileak, Corazon de Encina kultur-etxeko sukaldarien jakiak eta Arrasateko Galiziarren taldeko produktu tipikoak dastatu ahal izango dira.

Bestalde, arratsaldean, talde galiziarrak dantza eta musika emanaldia eskainiko du ospitaleko ikuskizun aretoan arratsaldeko 5etan. Bi ekintzak, ospitaleko gaixoei ezezik, bertara hurbildu nahi duten guztiei ere zuzenduta daude.

LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE
HIZKUNTZ ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK
Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BURGALES JATETXEA
Jaki goxoak eta giro atsegina
Durana, 12
ARETXABALETA

ERAIKUNTZAK
Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

ARRASATE HOTELA
Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

## ESAERA

*Inor ez da*
*"gizon handi bat"*
*bere morroiarentzat*

CONDÉ

## JEROGLIFIKOA




**Gaur... etorri zaigu laguna.**

## GURUTZEGRAMA



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Anuska, Goenkaleko arrasatearra. 5. Zangoaren beheko zatia. 8. Ukondo. 10. Landugabe. 11. Indioa. 12. Kantu. 14. Musu, haur hizkeran. 15. Erru, hoben. 17. (Ald.) Zuhaitz hosto iraunkorra. 19. Hiru, erromatar erara. 20. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. 21. (Ald.) Leku.

**Bertikalak** 1. Zerbait luzatzearen ekintza. 2. Amaitu. 3. Pilota jokoan jartzea. 4. EEB-Betako estatua. 5. Egoki. 6. Zezen zikiratu. 7. Non edo non. 9. Baratze. 13. (Ald.) Errepikatuz, kilima. 16. Hamabi Aita Santuaren izena. 18. ORPOko kontsonanteak.

## HOROSKOPOA

**Aries** Zuri bost axola zaizu ondokoari min egitea.

**Taurus** Oso kuxkuxeroa zarenez ez duzu ospe onik.

**Gemini** Aste Santuan ez zara oso santu ibili baina orain formalduz joan beharko duzu.

**Cancer** Egunotan uholdeak izango dira zure sukaldean. Iturriak itxi!

**Leo** Dirutza handiegia gastatu duzu oporretan. Merezi ote?

**Virgo** Gaztaroan ondo bizi izan zinen eta orain ondorioei aurre egin behar.

**Libra** Gorabehera ugari zure bizimoduan: alai batzutan, triste gehienetan.

**Scorpio** Zurea eta zurea bakarrik. Kaskagogorra benetan.

**Sagitarius** Bolada honetan oso gustora egongo zara zure familian.

**Capricorn** Ispiluak ez du beti egi osoa esaten.

**Aquarius** Zaindu zure gorputza, kirola egin eta kaltzioa hartu.

**Piscis** Diruz ez zabiltza hain ondo baina norbaitek asko maite zaitu.

Etxe-Aundi



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU
Anna de Codorniu

Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du
ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

# ETA, elkarrizketa eta bakea

Gure herrian gertakizunek hartzen duten abiaduraz herritarrok sarritan ikusten ditugu gatazkatik ateratzeko moduko ate berriak. Danbatekoak ere halakoak dira gero, batez ere gatazkaren ondorioak gertuagotik bizi dituztenentzat. Une epelak eta beroagoak iragaten ditugu, sarritan gori-goriak ere bai. Joxi eta Joxeanen gorpuen aurkikuntza edota Aznarren aurkako atentatua eta ondorengo lurrikara politikoa ditugu hurbilenak.

Zalaparta guztiaren erdian, bakoitzak bere mastari eusten dio gogor, eta kakanahastearen erdian edozein atzerritarrentzat nabarmena dena zurrunbiloan zehar galtzen da: ETAren borrokak -jarraitzaile gehiago edo gutxiagorekin, jarduera gaitzetsi edo txalotuagoarekin, ekintza bortitzagoak edo biguinagoekin…- sustrai politikoak ditu eta sustrai horietara jo barik gatazka ez da konponduko, esan edo egin ahalak eginda ere. Jadanik iragan dira 36 urte ETA sortu zenetik, horietatik 20 "demokrazian"; ETArekin ados egon ala ez, denbora nahikotxo jada irtenbide elkarrizketatu barik jai dagoela konturatzeko.

Irlandako bake hotsak indarrez entzuten dira hemen. Bertan egonda, ostera, "bake" hura hari oso mehetik zintzilik dagoela ikus liteke, hemen uste duguna baino meheagoa. Baina oraindik nabarmenago ikus liteke, bake urrats txiki eta xume horiek katoliko abertzaleen gutxieneko akordio batetik abiatu direla. "Han ere -Euskal Herriagatik- aurrera egiteko bide hori jorratu beharra duzue", diote irlandar errepublikarrek, Sinn Feinekoek. Baina kalean, giro errepublikarretan "eman gogor espainiarrei" diote. Burua eta bihotza.

Abertzale denarentzat behintzat, bakeak derrigorrez izan behar du zerikusirik Euskal Herriarekiko abertzaletasunak aurrikusten duen etorkizun aske eta burujabearekin. Bakea ETAren desagerpenean bakarrik ikusten duenak, begibakar ikusten du.

Abertzaleen arteko akordioa nola lortzen den? Auskalo, gaur egun gaitz ikusten da baina edozelan ere, elkarrekin mahai baten inguruan gutxienez mila bider jarriz -hauteskunde garaietatik kanpo ahal izanez gero- eta baldintza barik berba eginez. Berba egite horri ateak ixten dizkionak mesede kaskarra egiten dio bakeari. Ez da ezer berria, baina Irlanda horrenbeste aipatzen den sasoi gaitz hauetan, gauza oso sinpleak oso garbi edukitzea komeni da: bat, ETA eta Euskal Herriak Espainiarekin duten gatazkak lotuta doaz; bi, gatazkatik ateratzeko abertzaleon akordioa ezinbestekoa da; hiru, bakea eta euskal herritarrak euren etorkizunaren jabe izatea batera doaz.

**Xabier Letona "Ataxi"**





Memesa
79 42 22


Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du


• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Beñardo Kortabarria. **Kazetariak**: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea**: Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Goio Arana. **Kolaboratzaileak**: Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkía**: Goio Arana

*Alkoholarekin arazoak dauzkazu?*
*Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!*

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

**HIES EKIMENA**
**Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.**
**Tfnoa: 79 26 99**

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**
Zerbitzuak:
Diagnostikoa-Orientazioa
Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia
Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

beinke

• • • •

## Maitzaren 1a

109 urte igaro dira garai hartako langile erakundeek langilearen eguna izendatu zutenetik. San Frantzisko hirian, 15 eta 16 lanordu kopurua 8 ordura jaistea eskatzearren, poliziek hil zituzten langileen oroitzapenez.

109 urte geroago krisi ekonomikoan murgilduta gaude, sistema irrazional batean, kapitalismoaren ondorioz.

Krisi egoera hau gainditzeko kapitalak herrien eta langileen bizi eta lan-baldintzen kontura irtetea nahi du.

Langabezia, lanpostu prekarioak, gero eta ekonomia murgilduagoa, lan egiten dutenen lan baldintzak egunetik egunera eskasagoak dira. Hemen, Deba Garaian, langabetuen egoera aztertu du Egailanek (Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantza Sailekoak) eta esaten du:

– Langabetuak: 6.100 direla, Enplegu Bulegoan izena emanda daudenen bikoitza

– 3.600 emakumeak dira eta 2.500 gizakumeak.

– 16-24 urtekoak: langabetuen %52a.

– Bi urte baino gehiago lan bila dabiltzan langabetuak: %45a.

– Ezer kobratu gabe: langabetuen %52a.

– Bere lehen enplegua izan gabe %52,38a.

Horrez gain enpleguaren suntsipena, lantegi barruan inolako opozisiorik gabe, aurre-jubilazio edo ordaindutako bajen bidez egunez-egun handituz doa eta enplegu berri oso gutxi sortzen da. Askoz errazagoa eta irrazionalagoa da, ehundaka milioi lanpostuak suntsitzeko erabiltzea lanpostuei eusteko baino.

Bestetik, lantegi askotan, azken hilabetotan lan gehiago dagoenez langile asko ehundaka ordu extra sartzen ari da, ordu extrak kotizatu gabe, ondorioz insolidarioak.

Gaur egun, belaunaldi berriendako, enplegurik onena galtzen ez dena da, lan orduak gutxitzea, lana banatzea, ordu extrak ez sartzea. Horregatik maiatzaren 1ean langileok elkartasuna aldarrikatu behar dugu miserian daudenekiko. Beharrezkoak dira mobilizazio solidarioak berdintasunaren bidea jorratzeko, langabezia, lana eta aberastasuna berdin eta egoki ez banatzearen ondorioa delako.

**Juan Ramon Garai**
**Deba Garaiko Langile Komisioak**

• • • •

## Xabier Zubizarreta alkate jaunari

Arrasateko Ikastetxe Publikoetako klaustro eta Guraso Elkarteak, zuregana jotzen dugu Arrasateko Udalaren Hezkuntzari dagokion presupuestoren aurrean gure desadostasuna adierazteko:

1-Ikusten dugu Arrasateko Udaletxeak legea bere kasan aplikatuz, ez duela dirua behar bezala banatzen ikastetxe guztien artean, Herri Eskolen behar nagusiei erantzun ordez, behar horiexek pribatuko eskolek subentzionatuak dituzte, Arrasatear guztion diruak oparo harturik.

2- Ez al ditugu denak zergak ordaintzen?

Orduan, zergatik diskriminatzen duzue hainbeste Eskola Publikoetako ikaslegoa?

Udalaren obligazioa ez al da Ikastetxe Publikoak beste guztien aurretik behar bezala zaintzea eta laguntzea?

Adibidez, Arrasateko Udalak, aurtengo aurrekontuetan, Hezkuntza eta Mantenimendu alorrean, Eskola Publikoei 17.865.386 pzta. eman die, eta pribatuei 46.076.006 pzta., Hezkuntza arloan bakarrik.

Inbertsoetan ere, Arrasateko Udalak, urteotan zehar, politika baztertzailea eraman duelakoan gaude, beti ere pribatuei dirua oparo emanez.

Uste dugu Arrasateko Udalak, denon diruak ez dituela zuzentasunez banatzen, orohar Ikastetxe Publikoetako ikasleen kalterako jokatuz.

Hau guztiagatik, Arrasateko Alkate zaren horri, Hezkuntza diruak justizia gehiagorekin bana ditzazuela eskatzen dizugu, eta mesedez, 95. erako aurrekontuetan Eskola Publikoarekin egin duzuen bereizkeria konpon dezazuela.

Besterik gabe eta gure eskaera kontuan izango duzuelakoan,

Agur t'erdi.

**Arrasateko Ikastetxe Publikoak eta Guraso Elkarteak**

**OHARRA**

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzeailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.



Orain erabaki...?
16 urterekin askoz hobeto!
Bide guztiak zabalik izango dituzu eta...
Maiatzaren 4tik 18ra matrikula epea
16 URTE
REM
INFORMATIKA
HIZKUNTZAK
14 URTE
SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
... eta gainera, etxerako-lanak bertan egiteko aukera izango duzu!

# iKER

**SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK**











*Apain ezazu zure sukaldea kol re berr z.*

*Gure asmoa: edertasuna iraunkorrago eta gogortasuna ederrago egitea. Betirako.*

**SUKALDE ERAKUSKETA**

**Udala Plaza, z/g**
**ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43**

**BAINU ERAKUSKETA**

**Zarugalde kalea, 52**
**ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42**